

# tti pi-ttapa

240. zenbakia • 1998ko urriak 22 • XVII. urtea



ELIZONDOKO FERIAK

## Heldu den ortziral eta larunbatean

### 6 Iritzia: **Hauteskunde sindikalak Aceralian**

Urriaren 6an egin ziren bozketen emaitzak erreportaian bilduak daude, eta sindikatu nagusien balorazioak, bertzelde, iritzi sailean aurkituko dituzue.

### 28 Kirolak: **Miriam Blas**

Duela gutti zilarrezko bi domina lortu ditu beratar honek Espainiako txapelketan, mendi bizikletako jautsieratan.

**TTIPI TXARTELA:** Erosi zeurea eta erabili!



**Arantxa ARREGI eta Ana Martinez**

### "Negozio-idearen bat martxan jartzeko laguntza eskainiko dugu"

Cederna-Garalur elkarteak enpresa bat sortu nahi dutenei zuzendutako laguntza-zerbitzua martxan jarri du, Nafarroako Mendialderako aurrikusita dituen jardueren artean. Cedernako bi agente hauengana jo dugu zerbitzu honi buruz gehiago jakiteko asmotan.

**3**



**ACERALIA**

### Eskualdeko lantegirik haundiena indarberritzen ari da pixkanaka

Hasieratik Lesakako Laminazioak deituak 1994an CSI izena hartu zuen, eta 97ko udan, berriz, Aceralia bihurtu zen. Ondotik etorri den izen aldatzea pribatizazio prozesuaren ondorio izan da, eta hasierako bel-durrak uxatuta, iduri du lantegiari on egin diola aldaketak. *Arbed* multinazionalak kontrolatzen du gaur egun Aceraliako akzio gehienak, eta bai teknologikoki zein banaketa komertzial aldetik onura dextenteak ekarri dizkio enpresari.

Gauza jakina da eskualdeko ekonomian Aceraliak zenbateko garrantzia duen. Egun 1.340 langile enplegatzen ditu Aceraliak, eta horietako ia 1.000 eskualdekoan bizi dira.

**10**

# BAZTAN

multiservicios

Santiago 51

"La Asturiana"  
ondoan gaude

Tfnoa. eta faxa: 948 58 05 06

● **ENPRESENDAKO  
KONTABILITATEA:**

✕ **Zerbitzu fiskala:**

IVA, IRPF, Sozietateak

✕ **Zerbitzu laborala:**

Nominak, Autonomoak, Altak eta Bajak

✕ **Juridikoa:**

Kontratuak

● **ETXE ETA LURREN  
SALEROSKETA ETA  
ALOKAIRU  
ZERBITZUA**

● **ESKAERA  
HAUNDIAGATIK,  
BASERRI, BORDA,  
ETA ETXEAK EROSI  
NAHI DITUĞU**

**Ituren.** • Azken bi pisu berriak salgai,  
bajerarekin edo gabe. Aukera ezinhobea.

**Bera.** • Legia  
karrikan dagoen  
bajera hau, 207  
m2koa, zatigarria.  
Prezio arras  
merkea, premia  
izateagatik.

**Arantza.** • Etxe hau bere lurrekin salgai, arras  
eguzkitsua.

Doneztebe.

## DATUAK.....

❖ Cederna-Garalur elkarteak eragileei zuzendutako laguntza-zerbitzua martxan jarri du, Nafarroako Mendialderako aurrikusita dituen jardueren artean.

❖ Inguru horretan negozio-idea bat izan eta martxan jarri nahi duenari laguntza eskainiko zaio.

❖ Zerbitzu honen berri zehatzagoa izateko, Arantxa Arregi (Bortziriak, Malerreka eta Bertizarana) eta Ana Martinez (Leitzaldea, Larraun, Ultzama) Cedernako agenteengana jo dugu.

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
AITOR AROZENA

✍️ **Arantxa ARREGI eta Ana MARTINEZ** Cederna-Garalureko agenteak

## “Negozio-ideiaren bat martxan jartzeko laguntza eskainiko dugu”

### NORI ZUZENDUTA DAGO ERAGILEENDAKO LAGUNTZA-ZERBITZUA?

Nafarroako Mendialdeko edozein pertsonari zuzentzen zaio, baldin eta pertsona horiek baldintza hauek betetzen badituzte: Negozio-ideiaren bat izatea eta martxan jarri nahi izatea, berezko lanpostuak sortzen pentsatzea edo dagoenek lanean aritzen enpresa bat sendotu, handitu edo hobetu nahi izatea.

### ZER DA ZEHAZKI CEDERNAK ZERBITZU HONEN BIDEZ ESKAINTZEN DUENA?

Pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu pertsonala da hau. Cedernak, egitasmo bakoitza zehaztu eta abiadan jartzeko beharrezkoa den enpresa-aholkularitza eskaintzen du. Proiektua egiten duenak ez du bere herritik mugitu beharrik izan. Negozio-idea izaten duenetik negozioa sendotzen den bitartean laguntza eskainiko zaio.

### BAINA NORK ETA NOLA ESKAINIKO DIO LAGUNTZA HORI?

Idea Cedernak bere inguruan dituen agenteari aurkeztuko zaio. Honek baiezkota eman ondotik, Iruñean aztertuko da. Gero eskualdeko agenteak, zenbait espezialistek eta eragile horrek laguntzeko



«Laguntza nahi duenak 58.000 pezetako matrikula ordaindu beharko du».

izanen duen tutoreak, proiektuaren negozio-plana edo, nolabait errateko, bideragarritasun-plana egiten dute. Aipatu behar da tutore bakoitza proiektu bakarrean arituko dela, 40 bat orduz. Laguntza hori enpresa lanean hasten denean akautuko da. Halere, enpresa aunitzek lehen urtetan porrot egiten dutela kontuan hartuz, Cedernak

enpresa sendotu arte laguntza eskaintzen dio eragileari, hasiera zail horretan gerente lana egiteko, nolabait.

### BAINA GUZTI HONEK DIRUA GOSTAKO ZAIO, EZ DA?

Eragileak 58.000 pezetako matrikula egin behar du hasieran. Enpresa martxan jarri eta geroko laguntza nahi bado, bertze 58.000 peze-ta ordaindu behar ditu. Bistan denez, Cedernak eskaintzen dion denborak, baliabideak eta azpiegitura teknikoak gehiago balio du. Ce-

derna-Garalur elkarteak, Nafarroako Gobernua eta Gizarte Fondo Europarrak kofinantzatzen dute zerbitzu hau, beti ere ADAPT ekimen komunitarioaren barnean.

### DAGOENEO PROIEKTUREN BAT ESKUTARTEAN DUZUE?

Irailean hasi zen zerbitzua eskaintzen, eta oraindik publizidade haundirik egin ez bada ere, dagoeneko hiru proiektu laguntzen ari da Cederna-garalur, horietako bat Elizondoko komertzio bat.

► *“Enpresa aunitzek lehen urtetan porrot egiten dutela kontuan hartuz, enpresa sendotu arteko laguntza ere eskaintzen zaio eragileari”*





# Eskualdeko lan munduaren zutabea, indarrean

TESTUAK:  
ASIER GOGORTZA

**D**enbora batean Laminazioak bezala ezagutzen genuen lantegi hau, eta gaur egun oraindik

kosta egiten zaigu horrenbertze urtez errepikatutako hitz hori ahantzi eta Aceralia izen berrira ohitzea. Hala ere, Lesakako Laminazioak izatetik Aceraliara aldaketa ez da egun batetik bertzera eman: 94an CSI izena hartu zuen lantegiak, eta ondoren, 97ko udan, pribatizazio prozesua etorri zen, eta horrekin izen aldaketa berri bat.

Espainiako gobernuak bul-tzatutako pribatizazioaren

**Urdazubitik eta Bera artean dauden herri guzietan ekonomikoki badute antzekotasun haundi bat. Berez nekazar eremuak izanagatik, gaur egun etxe gehienetan industrietatik sartzen da bizitzeko beharrezkoa den errenta. Eskualdean Aceralia da, diferentzia haundiarekin, langile gehien enplegatzen dituen enpresa: Legasa, Zalain eta Lesakako fabriketan 1.340 lagun ari da lanean. Horietako 969 eskualdean bizi diren langileak direla kontuan izanik, aisa ikus daiteke Aceraliak eskualdeko ekonomian duen pisu ikaragarria.**

ondorioz, Arbed Luxenburgoko enpresa bihurtu zen Aceraliako jabe nagusia, akzioen %35a erostarekin batera. Gainerakoa esku desberdinetatik pasatuz joan da orduraz geroztik: %15a sektore berean aritzen diren enpresa nazionalen artean partitzea zen hasierako asmoa, eta gelditzen den

%50a, berriz, burtsan kotizatzea.


## Dependentzia ekonomikoa

Kontuak kontu, gauza da Nafarroa iparraldeko herrien ekonomia Aceraliaren menpe dagoela joan den aspaldian. Gaur egun modu zuzenean edo zeharka 1.000

familia baino gehiago bizi da lantegi honi esker. Beraz, ulertzekoa da bere garaian pribatizazioak herritarren artean sortu zuen ikara. Izan ere, atzerriko multinazional baten esku egotean, eskualdeko beharrei erreparatu gabe interes ekonomikoetako soilik begiratuko ote zitzaizkien beldur ziren sindi-


### FAKTURAZIOA

MILIOI PEZETATAN




### SALMENTAK

TONATAN




### IRABAZIAK

MILIOI PEZETATAN



\*Aurrikuspena

# ACERALIA ZENBAKITAN



## ORDEZKARITZA SINDIKALA

Kandidatura	Botu kopurua		Ordezkaritza kopurua urtez-urte		
	94an	98an	90ean	94an	98an
ELA	502	471	9	9	10
LAB	365	342	5	6	6
ESK-CUIS	163	111	2	4	3
CCOO	136	118	3	2	2
C. Cuadros	124	84	3	2	2
UGT	41	56	1	0	0

## LANGILEAK HERRIZ HERRI

HERRIA	TAILERREKO LANGILEAK		BULEGOKO LANGILEAK		DENETARA
	FINKOAK	ALDIBAT.	FINKOAK	ALDIBAT.	
Arantza	35	12	5	0	52
Aniz	3	1	0	0	4
Arraioz	8	1	2	0	11
Almandoz	4	2	1	0	7
Arizkun	7	1	5	0	13
Azpilkueta	6	0	0	0	6
Amairu	2	0	3	0	5
Bera	50	24	36	0	110
Berroeta	2	1	0	0	3
Donostia	15	8	30	0	53
Donamaria	9	2	1	0	12
Doneztebe	14	11	5	0	30
Elbete	3	0	1	0	4
Elgorriaga	5	1	0	0	6
Elizondo	43	13	22	0	78
Eratsun	2	0	1	0	3
Erratzu	9	0	1	0	10
Etalar	21	4	5	0	30
Gartzain	5	1	1	0	7
Gaztelu	3	0	0	0	3
Igantzi	18	1	9	0	28
Irun	135	61	102	0	298
Iruña	20	2	5	0	27
Ituren	10	7	1	0	18
Labaien	8	1	3	0	12
Legasa	14	3	1	0	18
Lekaroz	3	0	1	0	4
Lesaka	107	64	66	1	238
Narbarte	12	5	0	0	17
Oretea	25	5	16	0	46
Oronoz	8	3	2	0	13
Oitz	1	2	0	0	3
Saldias	3	1	1	0	5
Sumbilla	27	13	9	0	49
Urrotz	6	2	1	0	9
Ziga	8	1	0	0	9
Zubieta	4	1	0	0	5
Hondarribi	13	6	32	0	51
Pasaia	3	2	4	0	9
Alegia	1	0	0	0	1
Tolosa	1	0	0	0	1
Behobia	1	0	1	0	2
Lezo	1	0	0	0	1
Hendaia	1	0	1	0	2
Senpere	1	0	0	0	1
Urdazubi	0	2	0	1	3
Barañain	0	0	1	0	1
Goizueta	0	0	1	0	1
Iruña	0	0	4	0	4
Oieregi	0	0	2	0	2
Bertzeak	7	0	7	0	14
<b>Denetara</b>	<b>684</b>	<b>264</b>	<b>389</b>	<b>3</b>	<b>1340</b>
	<b>948</b>		<b>392</b>		<b>1340</b>

Datu iturriak: Aceraliako Balantze Ekonomiko Ofizialak eta Sindikatuak

katu eta udalak. Lanpostu murritzeta eta lantegia ixtea bezalako mamuak berehala zabaldu ziren herritarren artean. Geroztik, ordea, kezka guzi horiek alde batera gelditu direla iduri du, gerora begira begi onez ikusten direlako Aceraliak eskualdean dituen asmoak. Gisa honetan, lantegia indarberritzeko gogoz plan berri bat martxan jarri zen 1997an. 2002. urterarte luzatuko da plan hau, eta bertan ageri diren egitasmoen artean, Nafarroako 4 lantegietan (Legasa, Lesaka, Zalain eta Berriobeiti) 8.000 milioiko inbertsioak egitea aurriztatu da.

### Arbed-CSI: aliantza sendoa

Arestian aipatu dugun Arbed

Luxenburgoko kideak eman dio Aceraliari behar zuen sendotasuna. Teknologia aldetik batez ere, baina bertze aukera bat ere eman dio Arbed-ek. Izan ere, bertzeak bertze EEBB-etako merkatuan sartzeko bidea ireki dio Aceraliari, lehendik hango merkatuan partehartzen zuelako Arbed-ek. Duela gutti, gainera, QS-9.000 izeneko kalitate ezaugarria eskuratu du Aceraliak, eta horrek automobil sektorea hornitzeko atea ireki dizkio: Chrysler, Ford eta General Motors bezalako izen ezagunentzat lan egiteko aukera izanen du, beraz, Aceraliak.

### Euskal sindikatuak nagusi

ELA sindikatuko Enrique Lópezek TTPI-TTAPARI jakina-

razi dionez, inbertsio horiek gauzatzen joan dira pixkan-pixkan, eta horietaz aparte, bertze zenbait proiektu berri ere ba omen da Lesaka, Legasa eta Zalaingo lantegietarako: «Legasan, pintura linea berria jartzea, eta pintatutako materiala mozteko zentrua ere bai. Lesakan, zerbitzu zentru berri bat jartzea, eta zizailadura sail berri bat. Zalainen, berriz, iturri ez ofizialetatik dakigu sail garrantzitsuenetako bat zabaltzeko aukera ugari dagoela. Proiektu horiek guziak produkzioa hobetze aldera diseinatuak izan dira». ELAko ordezkaria baikor ageri da etorkizun hurbilari buruz: «Lesakako lantegia industria mailan egonkortu egingo da, eta horrek, dudarik

gabe, eragina izanen du lan munduan, eta baita gizartearen ere».

Sindikatuetatuz ari garenez, ezin aipatu gabe utzi urriaren 6an egin ziren hauteskunde sindikalak. Azken urteetan bezalaxe, ELA sindikatua nagusi izan da bozketan; denetara 10 ordezkari ateratu ditu. Bigarren indarra, berriz, LAB izan da, 6 ordezkariarekin. Euskal sindikatuak dute, beraz, nagusitasun osoa.

Ondoko lau urteetarako, bai ELA eta bai LABen lehentasuneko helburuak plantila haunditzea eta behin-behineko langileak finko bihurtzea dira. LABek, bere aldetik, fabrikako lan harremanak aldatu behar direla aldarrikatu izan du behin eta berriz. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

e-mail:

[ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

**Zuzendaria:** Aitor Arozena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogortza, Joxemanuel Irigoien.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Bittori Telletxea.

**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elxabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

**Inprimategia:** Gertu.

**ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarre...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Hauteskunde sindikalak ACERALIAN

#### Ez dugu lortu jende berriaren eta aldi baterako langileen boturik



Pello ASTIZ  
ESK-CUIS

Aurten ordezkari bat guttiago lortu dugu, baina esan behar da duela lau

urte laugarren ordezkaria 2-3 botorengatik lortu genuela, eta beraz, kasik normalizat hartu dugu.

Emaitza hauetan nabari da jende aunitz jubilatu dela, eta hori denentzako kalte den arren, guk ez dugu lortu jende berriaren eta behin-behinekoren boturik. Beharbada hori izan da gure akatsa. Nere ustez, hauteskunde hauen alde ona jendearren partehartze altua izan da. Langileen %91k eman du botoa, eta hori ona da bere baitan.

Bertzalde, sindikatuen arteko oreka puskatu egin da orain: alde batetik LAB eta ESK-CUIS zeuden, langileen partizipazioa bultzatzen dutenak, eta bestetik ELA, bere aldetik jokatzeko duen sindikatua. ELAK irabazi duen ordezkari honekin zailxeagoa izanen dugu, baina datozen lau urteetan orain arteko eskakizunekin segituko dugu.

Gure programan agertu dugun bezala, behin-behineko langileak finko egitea da gure helburu nagusia. Bestetik, arazo garrantzitsuak solastu behar direnean, asanbladetan erabaki dadila langileek zer nahi duten.

#### Emaitzek erakusten dute produkzioko langileek ELAren gaitasunaren konfidantza



Enrique LOPEZ  
ELA

ELAk oso balorazio baikorra egin du hauteskunde- en ondotik. Ikusirik ordezkari bat gehiago lortu dugula, eta ikusirik, gainera, talerretako langileen aldetik lortu dugula, oso pozik gaude. Emaitza hauekin euskal sindikal- gintza finkatu egin da lantegian, ELA eta LABen artean 16 ordezkari ditugulako. Bestalde, UGT bezalako sindikatu batek ordezkari bakar bat ere ez lortzeko garrantzi handia du 1.600 langileko enpresa batean.

Aurten lehendabiziko urtez ez da egokitu plantilaren murrizketarik hauteskunde garaian. Horregatik, kanpaina arras errealista egin ahal izan dugu, bertzelako presiorik gabe.

Izan dugun gorapena ttikia izan da, baina nahikoa, gure ustez. Batetik, horrenbertze urtez lantegi berean elkarbizi ondotik gauzak hagitzi argi daudelako, eta bertzetik, igoera hori tailerretan eman delako, murrizketak gehien jasan dituzten langileen artean hain zuzen. Horrek erakusten du sindikatuan konfidantza dutela. Izan ere, gure sindikatuak enpresa honen historiarekin lotura handia izan du betidanik, eta hauteskunde hauetatik sendotuagoa atera da ELA.

#### Zuzendaritza ELAren irauli egin da eta horrek eragina izan du emaitzetan



Julen MITXELTORENA  
LAB

Guri samin-goxo gustu bat utzi digute emaitzek, egia errateko gehi-

ago espero genuen-eta. Behin-behineko langileak ia %40a dira produkzioan, eta gure ustez horrek nahiko baldintzatu ditu emaitzak.

Kanpainaren azken partean zuzendaritzaren inplikazio gogorra somatu dugu, eta batez ere ELAren irauli egin dela. Horrek eragin zuzena izan du emaitzetan, beldurraren boto aunitz izan baita: lantegiak segi dezan moderatuak izan behar dugula, gauzak hitzegiten moldatu behar direla... bainan gero ikusten dugu hitzei ez dietela kasurik eginen. Indarra duenak ez badu onartzen bertzearen errana, berea inposatzen du eta kitto!

ELA eta LAB sindikatuen artean langileen %70a dugu. Edozein moduz, guk uste dugu euskal sindikatuak izateko ez dela aski, euskara ere sartu behar dela lantegian, eta hor zeregin handia dugu.

Horrez gain, gauregun jasanezina da duela 15 urte fabrikari lanean ari den langile bat ebentuala izatea oraindik. Lan harremanak ere hobetu behar dira, zuzendaritzak langileari zor dion errespetua erakustea, alegia.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

**BURLATA:**

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

# I. EUSKARA JARDUNALDIAK

♦♦♦♦

## EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

♦♦♦♦

Larunbatero goizeko 10etatik 13etara • Juansenea • DONEZTEBE

♦♦♦♦

Urriak 24 • Larunbata

\*\*\*

GAIA:

«Bilakaera historikoa. Euskalkien eta batuaren erabil esparruak gaur egun»

HIZLARIA:

Paxkual Rekalde, Filologoa

Urriak 31 • Larunbata

\*\*\*

GAIA:

«Eremuko euskalkia: lexikoa, erranerak, joskerak...»

HIZLARIAK:

Patxi Iñigo eta Paxkual Rekalde, Filologoak

Azaroak 7 • Larunbata

\*\*\*

GAIA:

«Euskalkiak eta euskara batua irakaskuntzan»

MAHAINGURUA:

Miguel Asiain (I.B.I.), M<sup>a</sup> Jesus Perurena (Doneztebe), Xabier Ballarena (Baztango Eskola Unitarioak)  
eta Kontxi Erro (Tantirumairu Ikastola) Moderatzaile: Pello Apezetxea

Azaroak 14 • Larunbata

\*\*\*

GAIA:

«Euskalkiak eta euskara batua komunikabideetan»

MAHAINGURUA:

Xorroxin Irratia, Xalao TB eta TTIPI-TTAPA  
Moderatzaile: Patxi Petrirena

ANTOLATZAILEA

♦♦♦♦



LAGUNTZAILEA

♦♦♦♦



Nafarroako Gobernua  
Hezkuntza eta Kultura Departamentua

## PARTE HARTZEKO EMAN IZENA

♦♦♦♦

Bete datu hauek eta bidali zati hau urriaren 24a baino lehen helbide honetara:

Izena.....

Helbidea.....Herria.....Tfnoa:.....

♦♦ Matrikularen prezioa 1.000 pezetakoa da.

♦♦ Ordaintzeko modua:

Txekea TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAREN izenean

Transferentzia Kontu honetara: Nafarroako Rural Kutxa 3008 0080 52 0200014973

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA

Argibideak:

**948 63 11 88**



 **Jon GORTARI** *Oronoztik*

## Euskara ez da gorde eta zaintzeko



**U**rrilako hila-  
labete honen  
18.ean, igan-  
dez, Zango-  
tzan ospatu  
dugu aurten-  
go Nafarroa  
Oinez egun

haundia. Hartu eman haundiko eguna izan delako hotsak aditu dira bazterretan. Berri eta hots horiek aunitz pozten gaituzte.

Gure Nafarroa zaharrea kontzientzia berri bat sortzen ari dela zalantzarik ez dago. Gure herri zahar hau, aintzinako herri hau, kon-  
turatzen ari da zer galdu duen eta zer behar duen: bere betikoa izan den hizkuntza, euskara alegia, erdieste, eskuratzea.

Herri baten nortasuna hizkuntzari zor zaio. Herri horren ageria, ezaugarri bezala, bere hizkuntza da inongo eztabaidarik gabe. Guk, euskaldunok, euskara dugu. Euskarak egiten gaitu bat. Euskarak egiten gaitu herri. Bai, hizkuntza da herri baten arnas, indar eta bizia. Indar horrek ibiltzen du, mugitzen du herri hori. Europako Xoko batean dagoen herri bat da Euskal Herria.

Ez gaude inolaz ere ahaztuta, guretako, Euskal Herriarendako arroz eta oso luze izan den ixtori edo kondaira batek urratu eta banatu nahi izan gaituela, bainan, guri, euskaldunoi, nortasun berezi bat eta gurea! den hizkuntzak, euskarak, iraunarazi gaitu zutik ekaitz guzien aurka. Hitz egiten dezagun, mintzo gai-

tezen, bada, euskaraz, honak salbatuko baikaitu, honak egingo baikaitu herri. Erraten zaigu euskara gorde, euskara zaindu egin behar dela. Ez. Gorde, ez! Ibili, mintzatu egin behar da. Euskara ez da zaintzeko eta gordetzeko; ibiltzeko, mintzatzeko baizik. Hizkuntzaren bizia, erabiltzea, mintzatzean dago. Mintzatzen ez den hizkuntza, hizkuntza hila da. Eta, hil ezker, dena hil da: Herri eta hizkuntza.

Ea bada, euskara dakienak mintza dezala, ibili dezala,

**Erraten zaigu euskara gorde, euskara zaindu egin behar dela.**

**Ez. Gorde, ez!**

**Ibili, mintzatu egin**

**behar da.**

**Hizkuntzaren bizia,**

**erabiltzea,**

**mintzatzean dago.**

**Mintzatzen ez den hizkuntza,**

**hizkuntza hila da**

bizi dezala. Eta, ez dakienak, ikasi eta mintza beza. Egin dezagun euskaraz! Euskarak egingo gaitu aske, herri libre bat.

Herri bat euskalduna.

Aberri bat Euskal Herria. Hizkuntza bat, euskara, gurea.

 **Miren JUANOTENA** *Langarra taldeko dinamizatzailea*

## Langarraren eguna



**U**rria ren  
11an ospatu  
genuen Le-  
gasan Langa-  
rraren Eguna.  
1993ko aza-  
roan taldea  
sortu zenetik

urtero ospatu ohi da Langarrazaleon, hau da, euskaltzaleon besta.

Langarra Euskara Taldeak urteko egun guztietan egiten du lan, Malerrekako gure betiko hizkuntzaren egoera hobetzeko. Eta urtean egun bat besta egitea merezita hasi ginen egun hau antolatzen. Besta giroa da nagusi baina, horren baitan dagoen helburu nagusia Euskara karrikaratzea eta Euskaraz aritzeko ohiturak nagusitzea da.

Horretan aritzen gara uneoro, gure zereginetan ikusten ahal den bezala: Kukumiku Lehiaketa, ikastaroak, udako zein neguko kultura...

Ekimen horien artean kokatu behar dugu Langarraren Eguna: herritarrok partehartzeaz aparte, euskara bultzatzeko ekimena bakoitzak berea egin dezan.

Goizetik hasi eta gaua arte jendearen mugimendua nagusi izan zen, nahiz haur jokoetan, artisauen erakusketan, bazkarian nahiz antzerkian.

Egun osoan zehar txaranga ibili zen karriketan barna giroa alaitzeko eta eskerrak eguraldiak gure alde jo zuela, bertaratu ginen 400 lagunok Euskaraz primeran, gustora pasatzeko moduko eguna izan genuen.

Antolatzaileek lan izugarria egin zuten, bai prestakuntza aldetik bai Langarra Euskara Taldea ezagutarazteko ere. Jendeak, orokorrean, bazekien zein egun mota ospatzen zen eta zertarako antolatua zegoen. Jendearen arteko euskarazko harremanak sortzea eta sendotzea da gure nahia eta harreman euskaldun horiek areagotzea eta indartzea pixkanaka-pixkanaka. Are gehiago gazteen artean. Gazteen esku dagoelako euskara bultzatzeko giltza, gazte euskaldunak di-

**Jendearen arteko**

**euskarazko harremanak**

**sortzea eta sendotzea da**

**gure nahia eta harreman**

**euskaldun horiek areagotzea**

**eta indartzea pixkanaka-**

**pixkanaka.**

**Are gehiago gazteen artean.**

**Gazteen esku dagoelako**

**euskara bultzatzeko giltza,**

**gazte euskaldunak direlako**

**eskualdeko etorkizuna**

**ziurtatzen ahal dutenak.**

relakoz eskualdeko etorkizuna ziurtatzen ahal dutenak.

Hortaz, aitzinerat begira hagitx positibotzat jotzen dugu herritar euskaldunen –herriko zein kanpoko– partehartzea eta euskaldun izateko nahia sustraitua izatea, besta giroan zein egunero bizimoduan; euskalduna delako euskaraz aritzen dena.



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias, 98ko irailaren 27a

«Euskaldunak denak onak garelako ideia dago, dena ongi egiten dugula, eta niri beti gustatu zait geure burua, neure burua, pixka bat kritikatzeari, zirikatzaile izatea».

**Patziku PERURENA**

Idazlea

Diario de Noticias 98-X-6

«Badakit bertze aizkolarientzat zaila izan daitekeela 49 urteko gizaseme batek gainditu dituela onartzea».

**Donato LARRETXEA**

Arantzako aizkolaria

Diario de Navarra 98-IX-21

«Erreforma guretzat ona edo txarra izanen da, egiten ahal dugun indarraren arabera».

**Mikel PETIRENA**

EHNE-Nafarroako idazkari

orokorra

Ardatza 98-X-9

◆ **Zer da pilotaren mundutik guttien gustatzen zaizuna?**

◆ Partidu bezperan etxean egon beharra, bestarik ezin egin.

◆ **Orain arte zenbat txapela lortu dituzu?**

◆ Aisa kontatzeko gisan.

◆ **Pentsatu ahal duzu geroan Maizen bidea jarraitzea?**

◆ Gustatu bai, baina zaila ikusten dut.

◆ **Nola hasi zinen lehenengo aldiz pilotan?**

◆ Lagunekin debora pasa hasi eta orain arte.

◆ **Banaka edo binaka?**

◆ Binaka, horrela lagunak laguntzen du.

◆ **Zure burua profesionaletan ikusten duzu?**

◆ Ez dakit, oraindik hagitz berde gaude.

◆ **Trinketea edo frontoia?**

◆ Frontoia, dudarik gabe, gainera etorkizun gehiago du.

◆ **Ospatzen dituzu irabazitako partiduak?**

◆ Bai, ahal bada txanpainarekin.

◆ **Gorputza mententzeko zerbait berezirik egiten duzu?**


◆ Astean lau egunez entrenatu.

◆ **Ze frontoi duzu gustokoen?**

◆ Arantzako frontoia, dudarik gabe.

◆ **Pilotatik bizitzen ahal da?**

◆ Ona izanez gero bai.



**Ander AGESTA**

Ikaslea eta pilotaria.

ARANTZA

 **Ostargi Optika**  
Bidasoa karrika, 8 • BERA • © 948 - 63 07 53

 **KULTUR ETXE AURRERAK**  
Bidasoa K/82 - 31700 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

**KULTURKARI**

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

© **948 63 11 88**

**PIKABEA**  
Molinero drogerian *pinturak* galdetu

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpaz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

**EDARRIAK**



Bidasoa K/82 - 31700 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27



Uharte-Arakilen aurkeztu zuten ITV mugikorra, urriaren batean

Ardatza

## Traktoreek ere ITVa pasatu beharko dute

Herriz herri mugituko da tailerra

Nekazal ibilgailuak ikuskatuko dituen ITV mugikorra urriaren lehenean aurkeztu zuten Uharte-Arakilen. Tailer hau herriz herri ibiliko da eta ondoko koadroan ageri da eskualdeko herrietara noiz ailegatuko den.

Legedi berriaren araber, matrikulatutako ibilgailu guzietan (baita neka-

zal lanean erabiltzen diren traktore eta gurdiak ere) pasatu beharra dute azterketa teknikoa.

Traktoreen kasuan 3.980 pezeta ordaindu beharko da eta gurdien eta antzeko tresneriaren kasuan berriz, 2.240 pezeta. Traktoreak gurdia berekin duenean lehenengo tarifa ordainduko da.

BERA.....	Azaroak 16
LESAKA .....	Azaroak 17
ARANTZA .....	Azaroak 18
ETXALAR.....	Azaroak 19
IGANTZI .....	Azaroak 20
SUNBILLA .....	Azaroak 23
EZKURRA .....	Azaroak 24
ITUREN .....	Azaroak 25
DONEZTEBE .....	Azaroak 26
DONAMARIA.....	Azaroak 27
BEINTZA-LABAIEN.....	Abenduak 1
ORNOZ.....	Abenduak 2
ALMANDOZ .....	Abenduak 3
ANIZ .....	Abenduak 10
IRURITA .....	Abenduak 11/14
ELIZONDO.....	Abenduak 15
ARIZKUN .....	Abenduak 16
AZPILKUETA .....	Abenduak 17
ERRATZU.....	Abenduak 18
AMAIUR .....	Abenduak 21
URDAZUBI .....	Abenduak 22
LEITZA.....	Otsailak 16-17
GOIZUETA.....	Otsailak 18

## Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak emanen dizkie Udalei Hirigintza Planak idazteko

Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu bat onetsi du, udal hirigintza-planen erredakzioa sustatzeko dirulaguntzak urtero ematea arautzen duena.

Dekretu honen arrazoi azalpenak dioenez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamenduak udal hirigintza-planen erredakzioa sustatzea du helburu. Lehenik 500 biztanle baino gehiagoko herriek egin behar zuten plana. Gobernuaren irudikoz, xede hau gaur egun lortua dago eta honenbertzez, eskakizun maila hau herri guzietara zabaldu behar da orain.

Nafarroako Gobernuak, zenbait udalek hirigintza planak egiteko prozesuan dauzkaten zailtasunez jabeturik, planeamenduaren erredakzioa diruz laguntzeko formulara jo du, izan ere, hainbat urtetan teknika hau hirigintza jardura haunditzeko tresna eraginkorra dela erakutsi baita. Dekretuaren bitartez, oinarritzko arategia eratu da mota honetako dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko.

**Dia %**  
Autozerbitzua  
deskontua

**Hamabostero ofertak**

*Zatuz eta ikusi*

Eztegara, 6  
© 948631403•BERA

*Loredenda*

*Azalea*

- \* Zentroak aukeran
- \* Loreak, krisantemoak, klabelak...
- \* Landareak, ziklumenak, azaleak...

Altzate 26 · © 948 631 121 · BERA

**kalotxa zapatadenda**

kanttonberri 6 Bera 948.631516

**Javier Manterola**

TEKNIKO  
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031•BERA

**ROMANO PINTURAK**

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxo eta sintasola.

© 948630941•948631137•BERA

# Lurraren Eguna hamabigarren aldiz eginen da igande honetan

Asegarce enpresako profesionalek pilota partidua jokatuko dute

## ASIER GOGORTZA

Dagoeneko dozena bat urte beteko ditu aurtien Lurraren Egunak. Denborarekin izen handia hartu duen besta egun horrek, eta gero eta urrunagotik etortzen da jendea artisauen lanetaz eta herrian egoten den giro bereziaz gozatzera.

Egitarau aldetik ez dago aldaketa haundirik, aurtien Asegarce enpresak antolatu dituen pilota partidak jokatuko direla erran behar bada ere. Oraindik ez da konfirmatua ze pilotarik jokatuko duten, baina segurutzat maila oneko partidua ikusiko dugula.

Bertze gainerakoan, barazki eta sagardo erakusketa eginen da goizean, eta Berako baserrietan egiten den sagardoa dastatzera emanen da ia bezala. Ondotik, goizeko 11ak aldera, Bera trikitixa eskola eta Musika eskolako banda eta txistulariek jarriko dute musika eta giroa. Hori baino lehen, ordea, eskulangileen erakusketak hasiko dira, eta egun osoan egonen dira Altzate karrikan.

Arratsaldean, berriz, talo eta sagardoa nahi adina probatu ahalko da Alzateko plazan, eta handik mugitu gabe gasna enkantean ere parte



**Urtero bezala, hainbat produktu erosi eta dastatzeko modua izanen da, eta baita artisauak bere lanean ikusteko aukera ederra. Beren lanari buruz zer edo zer galdetu nahi badiezue, gainera, gustora emanen dizkizuite eskatutako azalpenak.**

hartu, edo begiratu, bertzerik gabe. Eguna bukatzeko, Izotz taldeak berbena eskaniko digu.

## Salaketa

Preso eta errefuxiatuen omenez urtero bestetan egiten den kalejiran parte hartzeagatik salaketa ailegatu zitzaion Josu Goiari. Berako Guardia Zibilararen informea 'manifestazioaren' buruan joatea eta ekitaldia bultzatzea zein pankarta eramateaz akusatzaren zuten, eta 50.000tik milioi baterainoko zigorra finkatu zuten. Kontua da Josu Goia kalejiraren bukaeran joa-

ki zela txistua jotzen, eta ez pankarta eramaten. HBk zentzu honetan Udalean aurkeztu duen mozioa onartu eta

afera Gobernuako Dele-gatuarengana ailegatzeko konpromezua hartu du orain Berako Herriko Etxeak.

## Estibalitz Berroeta judoka, Euskadiko txapel-dunorde

Estibalitz Berroeta gazte beratarak Gipuzkoako selezioarekin hartu zuen parte Euskadiko Judo Txapelketan, eta 57 kilo azpiko jubenilen mailan bigarren postua eskuratu zuen. Txapelketa hau Ooreretan jokatu zen, eta bigarren gelditze-

ak aukera emanen dio Espainiako txapelketako finalera zuzenean sartzeko. Txapelketa hori Castejón-en eginen da asteburu honetan bertan.

Erran behar da Estibalitzek Lesakako Irain eskolan entrenatzen duela, Jesús Cayetanorekin.

## flash

### Udal zergak

Kontribuzio-Tasak ordaintzeko epea azaroaren 30a bitarte dago zabalik. Hortik goiti, ordainagiriak exekutibo bidez kobratuko dira, dagokien errekar-guekin.

### Moldaketak

Udalak berriki onartu du Berako zeharbidea -Agerratik Alzateraino doaina- moldatzeko proiektua. Zenbait alegazio aurkeztu zituzten herritarrek, eta bat kenduta bertze guziak onartuak izan ziren. Beraz, proiektua gauzatzeko duen enpresa aurkitzea bertzerik ez da falta. Hori enkante libre bidez eginen da.

### Zuzenketak

Joan den urriaren 8an argitaratu genuen ttipi-ttapan, eskualdeko hiltegien gaineko erreportaia heldu zen. Tartean, Berako hiltegien hiltzen dituzten harakinak aipatzen ziren, baina zerrenda hori osatu gabe gelditu zela eta, hona hemen zerrenda osoa: Lesakako, Jabier Fagoaga, Paxkual Iguzkiagirre igantziarra, Juantxo Iturbide etxalartarra, JJavier Iturbide beratarra, eta Igoaren alarguna. Bertetik, Rosario Picabeak partikularrentzat ere hiltzen ditu aziendak.

ALZATE - JUDOKA

Alzate, 19•948630786 •BERA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 — BERA — © 948 630763

© 948631076 • BERA

**BOTXO ostatua**

Tfnoa: 948 630 052

Zalain Auzoa, BERA

**LESKA**

# Igandean ospatuko da Irainek antolatutako Dantzari Txiki Eguna

Zortzi talde arituko dira karrikaz karrika, goiz-arratsaldez

AITOR AROZENA

Igande honetan, urriak 25, ospatuko da irain dantza taldeak hamekagarren urtez antolatutako Dantzari Txiki Eguna.

Irain eta Tantiur-mairu herriko taldeekin batera bertze sei talde arituko dira: goizean Lezo, Legazpia, Igantzi eta Donostiako Galizako Etxea ordezkatzeko duen Triskele taldeak Lesakan izanen direla ziurtatu dute antolatzaileek. Hauekin batera Goizueta edo Zaratuzko taldea arituko da. Ongietorria eskaini ondotik, talde guzikiok karrikaz karrika ibiliko dira, ibilbide ezberdinak osatuz eta beraien dantzak herriko xoko



Euskal herriko eta Galiziako dantzak ikusiko dira aurtan.

Artxiboa

guzietara zabalduz. Dantzariak etxeetan bazkalduko dute. Arratsaldeko 5etan, talde guzien emanaldia izanen da plazan—euria

egiten badu, pilotalekuan—. Saio honetan bertze talde bat gehituko zaie goizekoei, Baztango emakumeen taldea, hain xuxen.

Antolatzaileek bereziki gonbidatu du emakumeen talde hau. Dantza saioaren ondotik, trikitixarekin akautuko da egun berezi hau.

## Aceraliako bi zuzendarientzat kartzela eskatu dute

Aceralia enpresako zuzendaritza taldeko bi kide epaitu dituzte Iruñeko Entzutegian, 1997an Pedro Portu langilearen heriotza eragin zuen lan istripua dela medio. Hilda koaren familiak bi urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuen bi auzipetuentzat, lan segurtasunaren aurkako legehaustea egi-

teagatik eta arduragabekeriaren heriotza eragiteagatik. 25 milioi pezetako kalteordaina ere eskatu zuen. Fiskalak eta defentsak, berriz, auzipetuak libre uzteko eskatu zuten.

Epaiketa egiten zen bitartean, ELA, LAB, ESK, CGT eta EILAS sindikatuak ordezkariek protesta egin zuten epaitegi aitzinean.

## Bortz urte bete dituzte kartzelan Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxek

Urriaren 24an bete dituzte bortz urte kartzelan Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxe herriko presoek. Lerro hauek idazterakoan baieztatu gabe badago ere, larunbatean ekitaldiren bat eginen da —azken urteetan, Sastrin inguruan dagoen harrizko oroigarriaren oinezko ibilaldia antolatzen da—.

Momentu honetan Iñaki Fagoaga Cuencako espetxean dago eta Patrizio Goienetxe Langraitzekoan, Gasteiz ondoan. Azken orduan, hainbat komunikabidetan agertu denez, osasun arazo larriak direla eta Patriziori hirugarren gradua —kartzelera lotara barririk joatea— emanen zaio laster.

## flash

❖ **Egingo dugu kanpaina 2.800.000 pezeta bildu nahi dira herrian**

Egin egunkaria eta irratia itxi ondoren, komunikabide berri bat sortzeko dirulaguntza bilketa egiten ari dira, herriz herri. Egingo dugu kanpaina honen barenan 2.800.000 pezeta bildu nahi dira herrian, 100.000 pezetako akzioetan banatuta. Ez da beharrezkoa pertsona bakar batek 100.000 pezetak jartzea, akzioak taldean edo koادرilan erosten ahal baitira.

❖ **Autoestima ikastaroa**

urriaren 28an hasiko da. Bi orduko klaseak asteazkenero izanen dira, arratsaldeko 6etatik aitzinera ikastolan. Herri Eskolak Udalaren laguntzaz antolatutako ikastaro honetan 20 bai lagunek eman dute izena.

❖ **Euskara ikastaroak**

hasi dira Bortzirietako Euskaltegian. EGA edo Hizkuntz Eskolako 5. mailako titulua ateratzeko ikastaroan astean 8 orduz edo larunbatean lau orduz aritzen ahal da. Ikastaro honetan izena eman gero liburuak dohain izanen ditu ikasleak.

**ANA**  
Janaridenda  
Bittiria, 41 • ☎ 948637944  
LESKA

**kixkur**  
Ileapaindegia  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behea  
LESKA

**TRUKOLA**  
• bitxikeriak •  
• opariak •  
• enmarkazioak •  
Albistur, 39-K  
☎ 948627542 • LESKA

**M. Manuel Zamorano**  
Bernizadurak  
Pintura orohar  
Bittiria, 37 • LESKA • ☎ 989 042 671



**ETXALAR**

# Bereziartua medikuak osasunari buruzko lau solasaldi emanen ditu

Urriaren hondarreko bi ortziraletan eta azaroaren lehenbiziko bi ortziraletan

**PELLO APEZETXEA**

Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan entzuteko eta ikusteko aukera izan dugu Julian Bereziartua. Etxalarren ere bi bider bederen izan da. Beti dira interesgarriak bere erakutsiak. Oraingoan lau ortziraletan etorriko da, urriaren azkeneko bietan eta azaroaren lehenengo bietan, arratsaldeko 8etan. Gaiak, honako hauek: Urriaren 23an, 'Hezur eta junturetako gaitzak: erreuma, desgastea'. Urriaren 30ean, 'Sabeleko gaitzak: urdaila, hertzeak, gibela'. Azaroaren 6an, 'Azaleko eta odoleko gaitzak'. Azaroaren 13an, 'Here datzen diren gaitzak. Gaitz berriak. Txertoak'. Solasaldiak, Bortziritako Euskara Mankomunidadeak eta Etxalarko Euskara Batzordeak antolatu dituzte.



## Indurain anaiak Usategietan

Indurain anaiek, Migel eta Prudenek, Etxalarko usategietan pasa zuten urriaren 14a. Tiro batzuk egin, sarezko ehiza ikusi, trepa gainean egon eta ehizturi eta hurbildutako guziekin solas eta argazkiak egiteko beti prest.

## 'Egingo dugu' proiektuarentzako dirulaguntzak

Egin egunkaria itxi dutela eta, bertze egunkari berria ateratzeko laguntza bilketa egiten ari dira, herriz-herriz. Etxalarren ere, aferaren berri emateko egin zen bil-

guraren ondotik, egunkari berrirako zenbait akzio hornitzen doaz dagoeneko.

## Larraburua eta Bekolandako lanak hasiak

Larraburuko Zahar Etxea moldatze eta ho-

betze lanak emanak eta hasiak dira, baita Bekolandako urbanizatzekoarenak ere. Lasaga-Telletxeak hartu ditu lehenbizikoak, ateratako prezio berean, 8.831.537 pezetatan.

Bekolandako lanak,

berriz, Sasoi Eskabazioak egingen ditu, 8.352.000 pezetatan, hasierako prezioa baino milioi bat merkeago.

Larraburuko mobleak, azkenik, 2.494.000 pezetatan, Muebles Ordokik ekarri eta paratuko ditu.

## flash

### ❖ Eskulan ikastaroa

Hasi berri-berria da aurtengo eskulane-tako ikastaroa, bi taldetan aurten ere, as-telehenetan bat eta ortziraletan bertzea. Lan onak sortzen duen errelista nabaria da.

### ❖ Bideak moldatzea

Mendiko pista batzuk moldatuko ditu Udalak, hala-nola, Orizki, Burrarte, Lakateneko Borda-Marimigeleneko Borda eta Ozkaritz-Mizpiralepoko adar batzuk. Kostako den bi milioitik erdia Nafarroako Gobernuak ordainduko du.

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
© 948627573 • LESAKA

Ileapaindegi Mistoa  
**Ruth**  
Iñarreta, 5  
ETXALAR  
Tel.: 948 635207

**XATURBETXEA**  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa: 948 627 514  
Behoko Plaza 8, LESAKA

**HERRIKO OSTATUA ETXALAR**  
UDAZKENA-NEGUA  
Udazkeneko menu Berezia 3.300 pta (BEZ barne)  
· Ehiza fianbreak  
· Onddo nahaskia  
· Aza Pastela odolkitz bete, ilargorri eta pikillo saltsan  
· Usua, Etxalarko era zaharrera prestatua, galeper arrautze eta gaztain pureaz lagunduta.  
· Gaztain eta txokolate pastela  
· Errioxako etxeko ardoa 1/2  
Eguneko menua (jai egun eta bezperetan izan ezik) 1.300 pta  
Karta aukera. Haragi eta arrainak txingarretan erreak  
Herriko Ostalua Etxalar  
Tel.: 948 63 52 90

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIK  
sukalderako haltzariak  
ERA KUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxe: 948 637 266

**IGANTZI**

# Igantzikiko Bentan rotonda egitea eskatu du Udalak

Aurten ere 25 lagun inguru eskulan ikastaroetan

**OSKAR TXOPERENA**

Ez dugu deus berririk erraten Igantzikiko Bentako bidegurutzea hagitz arriskutsua dela aipatzerakoan. Kamioiak - harrobikoak batez ere - larri ibiltzen dira ateratzeko eta kote istripuak ere aunitz izan dira, Iruñea alde-

tik Igantzira sartzeko esperuan daudenei gibelatik jota gehien bat. Arazo honi hainbat irtenbide eman nahi izan zaizkio aspaldiko urteetan, eta orain, Arantza eta Igantzikiko Udalek Nafarroako Gobernuko Bide Sailari rotonda egiteko eskaria luzatu diote, lehen aipatutako

arriskua guttitu nahian. Bertzalde, Estobonagako lurren urbanizazioa egitea onartu da. Jakina denez, ura, argia, saneamendua, zola botatzea eta bertze hainbat lan sartzen dira aipatutako urbanizazioan. Lanen ordainketa lurren jabeen gain izan dena.



## Eskulan ikastaroa hasi da

Arrakasta izan dute nonbait eskulan ikastaroak, aurtengoarekin hirugarren urtea baitute jarraian.

M<sup>a</sup> Puy etxalartarrak emanen ditu aintzineko urtetan bezalaxe, eta oraingoan ere bi talde egin behar izan dituzte 25 lagunek eman baitute izena, horietatik bat bakarra gizona. Bazkalondoan ariko da talde bat, asteartetan 3etatik 5etara, eta ilunabarrez bertzea, asteazkenetan 7etatik 9etara. Berriz ere egon dira Igantzikiko etxeetako xokoak elegante, eskulatan apaintzen dituzten pitxer, altzari, etabarrekin!



## Biltokikoak Txindokin

Joan den hilabetean, irailaren 20an hain zuzen, Gipuzkoa aldera joan zitzaizkigun Biltoki Elkarteko 25 mendizale. Argazkian ageri den bezala, Txindoki mendiko kaxkoan izan zuten helmuga, gehientsuenak uste zutena baino gogorragoa gainera. Joan den igandean ez zuten autobus beharrik izan, helmuga Etxalarko Usategietan zuten eta. Goizeko 8tan atera ziren Igantzi bertatik eta ilunabarrean itzuli, bertan ederki bazkaldu eta gero.

**ANTZUZELA S.L.**

Inrugo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abuzardakoa' Macizoa  
Zahar antzekoa Txapeatua

**ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK**

**CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZUN S.L.**

Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errekifikadorak

Igantzikiko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**J. RAMOS**

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen ditut

© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

**ATM S.A.**

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzikiko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

**LESAKA**

**IRU BIDE**

Tfnoa: 948 637 127  
**LESAKA**

**ttipi-ttapa internet**

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttiji-ttapa>  
E-mail: ttiji-ttapa@topagunea.jalgi.com

**ARANTZA**

# Kultur Astea burutuko da urriaren 30etik azaroaren 1era

Igandean Baserritarren Eguna izanen da hirugarren urtez

ELIXABET ETA GARBIÑE

Urria eta azaroa lotuko dituen asteburua bereziki mugitua izanen da Arantzán, egun horietarako Kultur Astea antolatu baita.

Ortziralean, urriak 30, egitarau zabala izanen da. Arratseko 9etan '40 ordu' filmea eskainiko da eta gero filmari buruzko solasaldia izanen da. Gogoratuko duzue, filme hau hainbat leitzarrek egin eta protagonizatu zuten.

Larunbatean, arratsaldeko 5etan, Pello Añorga ipuin kontalaria arituko da eskolan. Bere emankizuna akautakoan, haurrendako berendua banatuko da eskolan. Meza ondotik, arratseko 8ak aldera, gazteen aisialdia edo denbora libreari buruzko solasaldia emanen du Zahar Etxean



### Egin-i buruzko solasaldia

Urriaren 9an Egin egunkaria eta irratia itxierari buruzko solasaldia eman zuten Josu Goiak. Hogeita bost lagun bildu ziren.

Urtxintxa Aisialdi Taldeak.

Aitzineko egunetan, bistan denez, hainbat ekitaldi izanen badira ere, igandekoa izanen da Kultur Aste honetako egun nagusia. Izan

ere, hirugarren urtez, Baserritarren Eguna ospatuko baita.

Goizeko 10etarako zabalduko da azoka pilotalekuan. Eguerdian, Nerea eta Melanie trikitilariak arituko dira.

2etan bazkaria izanen da Ekaitza elkartearen. Bazkari honetan izena emateko epea datorren astelehenean, urriaren 26an, akautuko da. Horretarako, Juana edo Idoiri abisatu behar

zaie eta aitzinetik 1.000 pezeta utzi. Bertzalde, azokan parte hartzen duen etxe bakoitzeko pertsona bat bazkaria gonbidatua egonen da.

Arratsaldeko 6etan antzerkia izanen da eskolan. Txalozirkus taldeak 'Zirku tipia' antzezlan eskainiko du.

UEMA, Bortzirietako Euskara Mankomunidadea, Guraso Elkartea, Gazte Asanblada, Ekaitza eta Udalak lagundu dute antolaketan.

### Ekaitza elkarte garbitasuna eta sukaldea

Urriaren 12tik aitzinera Kontxi Irigoien arduratuko da Ekaitza elkarte garbitasuna eta sukaldaritza. Otordua berak prestatzea nahi izanez gero, komeni da aitzinetik deitzea, 948 637450 telefonora.

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40 BERA

**ALBERGIA JATETXEA**  
☎ 948634179  
ARANTZA

**Lore eta landareak**  
Frain auzoa • ☎ 948637826  
LESAKA

**SAROB**  
okindegia

**SANDERS** Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera  
☎ 948630735

**ZALAIN JATETXEA**  
Zalain Auzoa  
☎ 948631106  
BERA

**Boda eta banketeak ematen dira**



**SUNBILLA**

# Herriko karrika berriei izena jarri die Udalak

Abendua bitarte luzatuko den eskulan ikastaroa hasi berri da

JAIONE ETA ALBA

Azken urte hauetan hainbat etxe berri egi- ten ari dira Sunbillan. Zenbaitetan karrikak ere sortu dira, ondorioz. Hau dela-eta, Udalak karrika hauei izena emateko beharra sumatu du.

Honela, igerilekura eramaten duen bideari Uixi karrika deituko zaio. Bertze karrika bati Ramon Latasa izena emanen zaio, aizkolari haundia izandako sun- bildarrari omenaldia egingez.

## Eskulan ikastaroak

Aste honetan hasi dira eskulan ikastaroak. Puy Urtasunek emanen ditu klaseak, abendua bitartean. Normalean, urtero-urtero emakumeak bakarrik aritu dira ikastaro hauetan, baina aurten bada berri- kuntzarik, gizon bat ere



Karrika berriak egin direnez, hauek izen berriein bataiatu dira Sunbillan

Artxibokoa

arituko baita, Hilario Urtxegi, hain xuxen. Denetara hamasei lagun arituko dira eskulanen teknika ikasi eta esku- lanak egiten. Akitzen dutenean, seguraski, iaz bezala erakusketa egi- nen dute.

## TTIPI-TTAPA TELEBISTARAKO berriemaileak

Sunbillan TTIPI-TTAPA telebistarako berrie- maileak behar ditugu. Ortziralero eskaintzen den Herriz Herri saio- an laguntzeaz gain, he-

rrian gertatzen diren kontuen berri emateko nahitaezkoa zaigu.

Telebistaren mundua barrenetik ezagutzeko modu polita duzue, be- raz, animo! 948 631 188 telefonora deitu eta so- lastuko dugu.

**BERTIZ**

## Bertiz Europako oihan zaharren artean sartzea eskatu dute ekologistek

Grenpeace, Anat- Lane eta Landazuria tal- de ekologistek Bertizko Natur Parkea Europako oihan zaharren arteko izendatzea eskatuko du- te. Honela jakinarazio zioten talde hauek Nafa- rroako Parlamentuko Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Inguru- giro batzordeari.

Hau onartuz gero, ekologisten ustez, «Bertizko kontserbazio egoera txarraren aitzakiz egurra ateratzeko planak berriro aztertu beharko lituzke Nafarroako Gobernuak».

Espainiako Ingu- rugiro Ministeritzarekin eginen dituzten bilere- tan ere, bertze horren- bertze eskatuko dute ekologistek. Beraien us- tez, «Bertizek 2.000 Hektareatik goiti ditu eta leku batzuetan gi- zakiak moldatu eta hon- datu badu ere, zenbait zuhaitzek kalitatezko baso zaharra dela era- kusten dute».

**GAZTANDEGIA**  
  
**LIZUN**  
 Etxeko Ardi Gazta  
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**ttipi-ttapa internet**  
  
**helbide berriak**   
 Internet: [jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa](http://jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa)  
 E-mail: [ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

  
**APARAN, S. A.**  
 BRIKOLAIA eta ZURAK  
 • Melamina taulak  
 • Taula hidrofugoak (uretik babesteko)  
 • Txapaz estalitako taulak  
 • Entzimerak  
 • Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak  
 • Pintura eta bernizak  
 • Bainurako mogleak eta osagarriak  
 • KIT mogleak, esku-erremintak, etab...  
 Tel.: 948 450 133  
 948 451 541  
 Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**OBRA PROIEKTUAK**  
 ✓ Etxe berriak eraikitzeko  
 ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik  
 ✓ Urbanizazio proiektuak  
 ✓ Obra-zuzendaritza  
 Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan  
**BIDASOA**  
 arkitektura bulegoa  
 Bittiria, 45 • © 948 637 503 • **LESAKA**



**DONEZTEBE**

# Aparkamendu arazo larriak sortu dira Donamariako bidean

Herrian obretan ari dira eta soluzioa ematea ez da errex

PATXI IRIARTE

Aparkamendu arazo larriak ditu gaur egun Doneztebek. Alde batetik herrigunean lanak egiten ari dira, baina batez ere, Donamariarako errepidean sortu dira auto pilaketa haundienak. Eta arazoa ez da doneztebarrentzat bakarrik. Donamaria, Oitz, Gaztelu, Urrotz eta Beintza-Labaiengo bizilagunek bide honetatik pasatu behar dute nahitaez. Soluzioa, itxuraz ez da zaila: babes ofizialeko etxebizitzak egiten ari diren aldean ez aparkatzea. Baina ohiturak aldatzea zailagoa da. Gainera, auzoko bizilagunek erraten dutenez, lan hauen ondorioz metro erdi bat jan zaio berez aski estua zen errepideari.

**SOLUZIO EZBERDINAK PLANTEATZEN DITUZTE HERRITARREK**

Badirudi polizia foralak bisitan etortzen hasiak direla eta dagoneko 15.000 pezetako isuna jaso dute zenbait doneztebarrek. Lehen-



**Guardiazibilaren kuartela herritik kenduko dute**

Aspaldiko afera da Doneztebeko kuartelaren lekualdatzea. Jakina denez, egoera aski kaxkarrean dago, gainera herri erdi-erdian eta asteburuetan, gazte giroa sortzen den karrikan. Ibilgailuak aparkatzeko arazoak ere ez dira oraintzekoak eta etxea partikular batena da. Oronozko batzarrea Doneztebeko guardiazibilak bertako etxebizitzetara joatearen kontra azaldu bada ere, Barne Ministeritzak bere erabakiarekin aitzinera segitzen du. Honela, kuartela Oronozera *mugituko* dela iduri du, baina oraindik ez zaio egunik jarri lekualdatze horri.

Diario de Navarra

dik ere hartu dira gisa honetako *soluzioak*, baina aste batzuk pasatuta, foralak joaten direnean, arazoak bere horretan segitzen du.

Aparkamenduaren

arazoa solasgai bihurtu da Donezteben eta gisa guzietako komentarioak aditzen dira. Batzuen ustez, Bordatxoko aparkalekua aprobetxatu behar harko litzateke, baina

lur-eremu pribatua dela gogoratu behar da. Hasieran, aparkamenduaren arazoa arindu behar zuen Elizagibela ingurua ere bete xamarra dago.

**Erreka taldeko eskubaloit taldeak hasi dira lanean**

Erreka elkarteko senior mailako taldeak hasi du denboraldiak eta iazko kanpaina bikaina errepikatzea du helburu nagusia. Patxiku Ganboak zuzentzen duen taldea da buru, baina bertze sei talde daude gibeletik.

Infantil mailan, neska eta mutikoak daude. Mutikoen entrenatzailea Txomin Mindegia da eta neskena Mikel Rekarte eta Lander Ezkiaga. Kadete mailako neskekin Patxiku Irigoien eta Juana Hualde ari dira eta mutikoekin Juanjo Gastesi eta Josu Urreaga. Jubenil mailan, Karmelo Rekarte eta Joseba dira mutikoen arduradun. Jubenil mailako neskenentzat entrenatzaile bila ari dira Errekan.

**Erreka Mendi taldeak egutegia prestatu du**

Erreka mendi taldeak behin behineko egitaraua prestatu du denboraldi honetarako. Berrikuntzen artean, gaez eginen den ibilaldi bat eta San Donato eta Iparlako ateraldiak daude. Konstituzioko zubian Piriniotan pasatuko dute asteburua.

**ETXANDI TXOKO jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN

☎ 948 450 491



**Eskulanak enkarguz egiten dira**

**Eskulangintzarako materialak lienzoak • kaballeteak • oleoak Haurrentzako eta helduentzako eskulan ikastaroa**


☎ 948 451 932 - Elizagibela, 4 - **DONEZTEBE**



**AMEZTIA Jatetxea - Hostala**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 948 450 028 • **DONEZTEBE**



**BELARRA**

OSTATUA - JATETXEA

Ameztia karrika • **DONEZTEBE**  
Tfnoa: 948 450 306

**MALERREKA**

# Patxi Olazar doneztebarrak irabazi zuen Elgorriagako Onddo lehiaketa

Kofrade berriak izendatu zituen Onddo eta Perretxikoen Kofradiak

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Amorozarena etxeko Patxi Olazarrek irabazi du Salvador Arotzarena zenaren omenez lehen aldiz Elgorriagan antolatutako Onddo lehiaketa. Patxi Olazar bere semearekin aritu zen onddo biltzen eta hiru klasetako perretxikoak (onddo beltza, onddo xuria eta gorringoa) aurkeztu zituen. Saria Ramon Bultó, Nafarroako Gobernuko Industria, Komertzio eta Turismo Departamenduko kontseilariaren eskutik jaso zuen. Honek, bere aldetik, Elgorriagako



**la bi kiloko ondooa Zubietan**

Francisco Etxekolonea Indakotxeak 1,8 kiloko ondoo beltza bildu zuen Zubietako Gorospilla inguruan urriaren 6an. Francisco zubitarra da sortzez eta Iruñean bizi da. Diario Navarra

Onddo eta Perretxikoen Kofradiako urrezko intsignia jaso zuen, ber-

tze zenbait gonbidatu eta kofrade berrik bezalaxe.

Bigarren saria, Elgorriagako Xibiternea etxeko Jose Antonio

Martiarenak eskuratu zuen. Honek ondoo beltzekin soilik osatutako saskia aurkeztu zuen, baina nolako ondoo beltzak!

Hirugarren saria Elgorriagako Topilloako Claudio San Miguelek bereganatu zuen. Honek ondoo-sorta polita aurkeztu zuen, zenbait gibelurdi eta urrezko zizekin.

Lehiaketaren sari banaketaren ondotik egingutako anaitasun bazkariarekin eta Napardi abesbatzaren emanaldiarekin akabildia eman zitzaizen zenbait astez luzatu diren Onddo eta Zizen Jardunaldi hauei.

# Ezkurrako Migel Mariezkurrenak Arkupeak elkartearen omenaldia jaso zuen

Bera da jubilatutako kiderik zaharrena, 96 urterekin

TTIPI-TTAPA

Ezkurrako Migel Mariezkurrena Telletxea 'Xarra'k 97 urte beteko ditu azaroaren 5ean. Urriaren 12an Elizondon ospatutako bestan, Arkupeak elkartearen omenaldia jaso zuen, bera baita jubilatutako elkarteko kiderik zaharrena. Halere, ez da atzean gelditzen horietakoa eta bai bazkarietara baita bidaietara ere abudo apuntatzen da Migel. Xabierreko gaztelua, Leire, Arantzazu edo Errioxa bisitatu ditu,

besteak beste. Jaterako orduan, denetik jaten bat salda eta esne jeitzi berria. Elizondoko bestan zerbait gehiago ere jan izanen zuen, duikabe, ez baitzuten nolana hiko menua prestatu ospakizunerako.

Mugitzeko bi makil en laguntza behar badu ere, osasuntsu ageri da Migel Mariezkurrena. *«Zenbaitzutan, jaten dudanaren arabera, zintzurra gaizki izaten dut, baina medikura joan, botika hartu eta segidan sendatzen naiz. kontentu egoten ahal naiz.»*



Xarrak omenaldi hunkigarria jaso zuen Elizondon

# Elizondok zabalduko du udazkeneko ferien txanda

**U**dazkeneko ferriak ailegatu dira. Berez, San Lucas

ondoko asteko ortziralean izaten dira Elizondokoak, baina aurten urriaren 30ean izanen dira. Inguruko nekazari eta abeltzainak besta giroan biltzeko aitzaki ona bada ere, sektore honek dituen arazoak eta beharrak ez ditugu alde batera utzi nahi izan. Horretarako, Nafarroako bi sindikatuengana, UAGN eta EHNErengana, hain xuxen, jo dugu.



Urriaroko azken ortzilerien izanen da aurten Elizondon azienda tratuan aritzeko aukerarik.

Arg.: ONDIKOL

**JULI** ostatu-jatetxea

*Ferietako menu berezia*

© 948 580 288 · Giltxaurdi 4 · **ELIZONDO**

**ITSASONDO** ostatua

**Pintxoak · Bokatak · Taloak**  
**Dastazazu gure kroketak**

© 948 580238 · Jaime Urrutia 3 · **ELIZONDO**



**ALBAITARI ZERBITZUA**

**MERKATARITZA:** • Botika • Osagarri mineralak • Bildots eta aretxeendako esnea •  
• Xaboi eta desinfektatzaileak • Materiala • Hazi • Nitrogenoa • MVE Garrafak •

**AITA DONOSTIA 7 • TELEFONO: 948 580980 • FAXA: 948 452111 • ELIZONDO**

## Haragitako eta esnetako behien etorkizuna

**E**uropako Komisioak, joan zen martxoaren 18an Nekazal Politika Arruntean (PAC) aldaketan proposamenak aurkeztu eta onartu zituen.

Aipaturiko dokumentua luzea baita guri nagusiki interesgarriak zaizkigun bi sektoreri buruz arituko gara hemen.

### Haragitako behiak

Europako Komisioak aurkezturiko proposamena onartuz gero, 2000. urteko apirilaren 1ean jarriko da martxan. Proposamen honetan, haragi behientzat aldaketarik gusienak honako hauek lirateke; lehenik eta behin, 2000-2001 kanpainen hasi eta 2003-2004 kanpaina bitartera garantizaturiko prezioen %30en jautsiera bat izanen da, hau da, 2.780 ecu/Tonatik 1.950 ecu/Tonara jautsiko litzateke; bigarrenik 2002 urteko uztailean Ietik interbentzioa kenduko litzateke

◆ Azienda bakoitzeko dirulaguntza (ECU)						
	2000. URTEAN		2001. URTEAN		2002. URTEAN ETA ONDORENGOETAN	
	ecu	ptak	ecu	ptak	ecu	ptak
<b>TXEKORRA</b>						
a) Zezena (bizitzan behin) 10 hilabete baino gehiago	165	27.555	195	32.565	220	36.740
b) Idia 10 hilabetetara	130	21.710	150	25.050	170	28.390
d) Idia 22 hilabetetara	130	21.710	150	25.050	170	28.390
<b>BEHIA</b>	155	25.885	170	28.390	180	30.060
<b>ESTENSIFIKAZIOA</b>	100	16.700	100	16.700	100	16.700
<b>GUTUN NAZIONALA</b>	45,7	7.632	89,6	14.963	138,2	23.079

◆ Azienda bakoitzeko jaso daitekeen dirulaguntza maximoa						
	2000. URTEAN		2001. URTEAN		2002. URTEAN	
	ecu	ptak	ecu	ptak	ecu	ptak
<b>TXEKORRAK</b>	210	35.070	280	46.760	355	59.285
<b>BEHIAK</b>	175	29.225	205	34.235	235	39.245
<b>MIGAK</b>	100	16.700	150	25.050	225	37.575

\* Kontuan izan kalkuluak 1 ECU = 167 pta direlakoan egin direla eta ECUaren aldaketaren arabera diru kantitateak aldatuko direla

eta almagaznamentu pribaturako laguntza berri bat sortu; azkenik prezioen jautsiera konpentsatu ahal izateko laguntza

desberdinak emanen litzukete:  
a) Prima zuzena animalia bakoitzeko (ECU)  
b) Prima berezia txekorrentzat:

«gutun nazionala» derizotena.  
d) Extensifikazio prima (abere kopurua 1.4 UGM/Ha izanik).  
- Hemen aipaturiko propo-

**ELIZALDE ESTANKOA**  
TABAKOA  
OPARIAK eta ALDIZKARIAK

**NAFARPRESS**  
LIBURUDENDA  
Prensa, aldizkariak, eskola eta bulego materiala  
Jaime Urrutia 43 • ☎ 948 580902 • ELIZONDO

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.jalgi.com/napagunea/ttiji-ttapa>  
E-mail: ttiji-ttapa@napagunea.jalgi.com

**IPARLA KIROLAK**  
• Kirolak orokorki  
• Ekipamenduak  
Santiago 51  
☎ 948 58 05 85  
ELIZONDO

**ZUNZARREN**  
**ARTEKARITZA**  
• Aseguruak, Autoen Matrikulazioak, Gida Baimenen Berritzeak eta Garraiolariendako Ikastaroak  
**BIDAI AGENTZIA**  
**AUTO-ESKOLA**  
☎ 948 45 22 93 • AMAIUR GAZTELUA 2 • ELIZONDO

**La Asturiana**  
Ostatua • Jatetxea  
• pintxoak • bokadiloak •  
• gosariak • plater konbinatuak •  
Menua edo karta  
Feria enak pasal!  
Santiago 51 • ☎ 948 58 04 63 • ELIZONDO





samenak ongi aztertu ondoren, UAGNri derrigorrezkoa iruditzen zaio, OCM honen aldaketa egin aurretik, Europar Elkartearen osatzen duten estatu bakoitzari produzitzen duen txekorren arabera primen eskubiak berdintzea.

- Espainiak azken urte hauetan daukan txekorren kopurua baino % 25 gehiago hil du, ondorioz, baserriarrak prima jasotzeko garaian gauditutako portzentaiaren arabera zigorturik izan dira, eta guzti honek, gure baserriarren kompetibitatearen galtzea ekarri du.

- Beraz UAGNk nahitana hiezkoa ikusten du Espainiako txekorren kopurua gehitzea, batez ere beste estatu batzuk beharrezkoa duten kopurua baino askoz ere gehiago dutenean.

- Bertzetik, UAGNk defendatzen duena zera da, txekorren prima eskatzeko garaian, esplotazio bakoitzeko gehienez 90 txekor deretxodunengatik prima eskatzeko eskubidea berdin mantentzea. Eraberean, behiendako eskubideen kantitatea gehitu eta eguneratzea; honela gure baserri txikieetako explotazioen bideragarritasun ekonomikoa lortu eta zebaderoetatik nolabait babestuagoak egon daitezten.

*Segitzen du* 

UAGNren ustez nahitaez jia da Espainiako txekorren kopurua gehitzea.

Arg.: ONDIKOL

## *Eskisaroi jatetxea*

### **Bisita gaitzazu ferietan!**

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013 • ELIZONDO

## **MALKORRA GOZOTEGIA**

*Urrekin egina • Turroi eta mazapanak  
Etxean egindako gozoetan espezialduak*

Jaime Urrutia • ☎ 948 580061 • ELIZONDO



**LAU - BIDE** Traktore konponketa eta salmenta  
© 948 453 425 • ARIZKUN 



## **B. ALMANDOZ OINETAKOAK**

### *Oinetakoen salmenta eta konponketa*

Santiago karrika 47 • ELIZONDO

## Iris Floristeria

- X Landare zentroak
- X Krisantemoak, azaleak, ziklamenak...
- X Lore xortak eta landareak loretan kanposanturako



DOMISAINDURAKO ESKEINTZA BEREZIA

Jaime Urrutia 21 • © 948 58 10 53 • ELIZONDO

## Ferreteria Quevedo

- Elektrizitatea • Zerraildegia • Erremintak
- Joareak • Haziak

Babesa eta edertasuna guziaren gainetik



Santiago 21 eta 31 • © 948 580234 • Faxa: 948 581210 • ELIZONDO

### Esne behiak

Sektore honen kasuan, proposatzen den punturik nagusia 2006. urteraino esnearen kuotaren mantentzea da eta 2001. urteko apirilaren 1etik aurrera lau kanpainetan erreferentzi kantitatea %2 gehitzea da. Erreferentzi kantitatearen igoera hau izanen litzateke, %1 Europako Ekonomi Elkartea osatzen duten estatu guztien artean banatzeko (Gazte baserriarrek lehentasuna dute) eta bertze %1 mendialdeko baserriarren artean banatzeko.

Bertzetik, interbenzio prezioa % 15 jaustea proposatzen dute lau urtetan (2000-2004) eta azkenik dirulaguntza zuzen bat, piskanaka altxatzen joanen dena, behi bakoitzeko 100 ecu iritsi arte -Koadroan-.

Erran beharra dago dirulaguntza hauek ez direla hezur-haragizko behiengatik hartuko,

baizik eta "behi birtual" bakoitzagatik. Nola jakin zenbat behi birtual dituen bakoitzak? Norberak daukan esne kuota, Europako Ekonomi Elkartean dagoen banaz bertzeko errendimendua erekin (5.800 kilo/behi bakoitzeko) zaituaz lortzen da.

UAGNren ustez esne sektorearen aldaketak puntu nagusi batzuk ditu, gure baserriarren errentak hobetu ahal izateko, baita konpetitibagoak izateko ere.

- Aldaketa hauetatik sortzen den edozein OCMk baserriarrei errenta egoki eta mantengarri bat eskaini behar die.

- Nafarroako esne sektoreak, derrigorrez berrestrukturatzen joan beharra dauka, merkatuetako liberalizazioak bultzaturik. Baina aldaketa guzti hauek dirulaguntza bat behar dute, batez ere gure baserriar txikien esplotazioak



mantentzeko.

- 2006. urtetik aurrera, Europako Ekonomi Elkartean gaur egungo esne kuotaren sistema kentzea eraba-

### ◆ Hiru primen aldaketa urtetik urtera

	2000. URTEAN		2001. URTEAN		2002. URTEAN	
	ecu	ptak	ecu	ptak	ecu	ptak
OINARRIZKO PRIMA	25	4.179	50	8.358	75	12.536
HARAGIKO BEHIEN PRIMA	14	2.407	27,5	4.597	41,9	7.004
GUTUN NAZIONALA	11	1.881	22,5	3.761	33,8	5.642
GUZTIRA	50	8.467	100	16.715	151	25.182

## Hamar urte baino gehiago zure zerbitzuan

### Zergalan Asesoria, S.L.

Akullegi, 3 - 2.A

© 948 580 335

ELIZONDO

**Ordutegia:** Astelehenetik Ortziralera, egunero goizeko 9etatik 13,30ak arte.

- Auditoriak
- Zerga Aholkularitza
  - Errenta (Aitorpenak, moduloak, e.a...)
  - Elkartea gaineko Zerga
- Ekonomia Aholkularitza
  - Bideragarritasun ikerketak
  - Koste ikerketak
- Kontabilitateak
- Nominak, Aseguro Sozialak
- BEZ (IVA)

## VIDEO CLUB BAZTAN

**Feria onak  
pasa itzazue**

Jaime Urrutia 38  
ELIZONDO



kiko balu, baserritarrek dirulaguntza bat hartu beharko lukete, UAGN-ren ustez. Orain arte esne-produkzioa uzteko administrazioak martxan

jarritako programa desberdinetan parte hartu duten bertze baserritarrak bezala.

- UAGNren iritziz esne sektorearen al-


Nafarroako esne sektoreak derrigorrez berrestrukturatzen joan beharra dauka, merkatuetako liberalizazioak bultzaturik, UAGNren arabera. Baina aldatetara hauek dirulaguntza behar dute.

Arg.: ONDIKOL

2003. URTEAN		2004. URTEAN		2005. URTEAN	
ecu	ptak	ecu	ptak	ecu	ptak
100	16.715	100	16.715	100	16.715
41,9	7.004	41,9	7.004	41,9	7.004
44,9	7.506	44,9	7.506	44,9	7.506
187	31.225	187	31.225	187	31.225

## ARGIBEL OPTIKA

© 948 581 391 - Santiago 62 - ELIZONDO



### Aukera zabala

- Antejoak
- Lentillak
- Audifonoak

Errebisioak ez dira kobratzen

## SANSIÑENA GARAGEA

Tfnoa: 948 580 406 • ELIZONDO



### CITRÖEN Zerbitzu Ofiziala

- Mekanika tailerra
- Kotxe konponketa
- Bigarren eskuko kotxeak



### Zerbitzu Ofiziala

- Agria eta Fiat'NewHolland traktoreak
- Erabilitako nekazal tresneria



## VIRGILIO OINETAKOAK

1922an fundatutako etxea  
© 948 58 02 09 - 948 58 02 79  
Santiago 32 • ELIZONDO

*Larunbata egun osoan irekita!*





daketak gazte jendearen sarrera erreztu beharra dauka, batez ere esplotazio txikiak dituzten baserriak mantentzen segitzeko.

-Bertzetik, esne kuota gehitzea ezinbertzekoa

da. Berez produzitzen dugun esne kopurua baino kuota txikiagoa dugunez, urtero esne kuota gainditutako neurrian isuna ordaindu beharrean gaude. Esne kuotaren haunditzearekin bat, esplota-

zio bakoitzeko banaz bertzeko esne kuota haunditu beharko litzateke, esplotazioek bideragarritasun ekonomikoa, egingdako inbertsioen amortizazioa, etab... lor ditzaten. Beraz, hitz bate-

an, gure esplotazioak konpetitiboagoak izan daitezten. □

⇒ UAGN

UAGNren iritiz esne sektorearen aldaketak gazte jendearen sarrera erreztu beharra dauka, batez ere esplotazio txikiak dituzten baserriak mantentzen segitzeko.

Arg.: ONDIKOL

**ELIZETXE**  
Materiale  
elektrikoaren  
salmenta

Jaime Urrutia 8 · ELIZONDO · ☎ 948 581261 · Fax:948 452397

## Bidegain Arraindegia

Feria onak pasa

Jaime Urrutia 22 · ☎ 948 58 04 98 - ELIZONDO

**sautxotena**  
**j a t e t x e a**

Pedro Axular, z/g  
Tel.: 948 58 02 97  
31700 ELIZONDO

**KASINO**  
**OSTATUA**

Feria onak pasa!

Jaime Urrutia 10 · ELIZONDO

*intza*  
*taberna*

Feriak  
ongi pasa

☎ 948 580 417  
elizondo





**UNION DE AGRICULTORES  
Y GANADEROS DE NAVARRA  
U.A.G.N.**

Santiago 30, behea · **ELIZONDO**  
☎ 948 580 627

**CIAVRRIZ**

**harategia · urdaitegia**

Jaime Urrutia 26 · **ELIZONDO**  
☎ 948 580 257

**MARTIN  
ARRAZTOA**

**MOTOAK  
eta  
BIZIKLETAK**

Santiago  
☎ 948 580137  
**ELIZONDO**

*Baztango likore naturalak*

**ORDOKI**

Herrikoi Egosberak

*Patsaka*

*Feijoa*

*Patxarana*



**BAZTAN**

*Kamamila anisekin*

*Menta*

*Erregaliza*

*Tea*

**ARIZKUN-NAFARROA**  
LICORES BAZTAN SAT 582 NA  
☎ 948 453410 - Faxa: 948 453378

**JOMI**

**EROSTETXEA**

*Bainurako mogle eta gehigarriak*

*Sukalderako tresnak*

Santiago 60-B (DIaren atzean)  
☎ 948 452395  
**ELIZONDO**



**OKINDEGIA**

Ogi aukera zabala  
Momentuan xehetutako  
COSTA FRIA kafea

☎ 948 58 14 07  
Santiago 20 - **ELIZONDO**

# Nekazaritzaren erreforma berriaren aintzinean

*Prezioei eustea eta diru laguntzak ongi banatzea da EHNE sindikatuaren erronka*

**E**uropar Batasuneko Batzordeak Agenda-2000 dokumentuan planteatu duen nekazaritza erreforma erabat kaltegarria da Euskal Herriko nekazaritzaren etorkizunerako. Puntu asko eta asko dira kritikagarriak, horien artean lau nabarmenduko ditugu: prezioen jaustiera, diru laguntzen menpekotasuna areagotzea, finantziarioaren eredu berria eta neurri estrukturalen planteamendu berria.

## Prezioen jaustiera

Europako planteamendu berriaren arabera merkatuak liberalizatu egin nahi dira, konkpetibitatea bultzatzeko mundu mailako merkatuetan. Horretarako jautsi egin nahi dituzte esnearen, haragiaren eta zerealen prezioak. Planteaturiko jautsiera ez da nolana hiko gainera: %30 haragian, %20 esnean eta %15 zerealean. Lehendik ere prezioak baxu egonda, egoera berri horretan kostoen azpitik produzitu beharko genuke,

eta etekinak diru laguntzetatik etorriko liritekeen. Sindikatuaren iritziz planteamendu honek baserriaren mundua estutu egingen luke, zenbait esplotazio desagertaraziz. EHNEren iritziz errenta produktuaren balioaz osatu behar litzateke.

*Segitzen du* 

Europako planteaturiko Nekazaritza Erreforma kaltegarria da Euskal Herriko nekazaritzaren etorkizunerako, EHNEren ustez.

Arg.: ONDIKOL



## PUERTAS JAMAI

- Armario enpotratuak
- Kristalak
- Zurezko zolak berritzen ditugu  
- Akutxilatatu - Bernizatu
- Tarima
- Parketa

Pedro Axular 1 · ☎ 948 580825 · ELIZONDO

**GOIZ-ALDE**

**OSTATYA**

*Aukera zabala  
platera, bokata eta pintxotan*

*Postreerako  
Joxeparen kanutilloak*

Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO  
☎ 948 581 334

## ANTXITONEA TRINKETEA

*Kaxulatan  
espezializatuak*

Braulio Iriarte 16  
ELIZONDO

## LEIZA

### Elektragailuak MASTER KATEA

Amaiurko Gaztelua 2  
Tfnoa: 948 58 03 51  
ELIZONDO

Sukalde  
mobleak  
montatzen  
ditugu

Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe

## Lissa





**Eusarte**  
HARATEGIA

Jaime Urrutia 35 - ☎ 948 58 01 28  
ELIZONDO

**BAZTANDARRA  
KOOPERATIBA**



Ferietan ere  
baserritarren  
zerbitzurat

Tel.: 948 453 310 - Faxe: 948 453 375  
Ordoki Auzoa · **ARIZKUN**

## MerkaOPARI

Behor duzun oparioa  
behor duzun prezioetan

Santiago 47 · ☎ 948 581349 · ELIZONDO



**BAZTAN  
OPTIKA**

Santiago, 33 (Baztan Ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

BETAURREKOAK + GRADUATUTAKO LENTEAK  
EMAKUME, GIZONEZKO EDO HAURRENTZAT

**8.500 pta. bertzerik ez**

## LACOSTA ANAIK TAILERRAK

Kotxe marka guztien  
KONPONKETA

Mekanika, txapa  
eta pintura

PRE-ITV,  
ITVtan dauden  
aparato berdinekin

Bezeroendako GRUA  
ZERBITZUA

Gas-neurgailua

Zaldubia Poligonoa  
☎ 948 452119  
IRURITA

## Natura Etxea

**BELARDENDA ETA  
DIETETIKA**

- Sendabelarrak
- Produktu naturalak
- Kosmetika naturala
- Naturopatia kontsulta
- Pisu-terapia
- Iilearen tratamenduak

Ongi pasa ferietan!!

Iturri Ederra • Tfnoa. 948 58 02 03 • 31700 ELIZONDO




«La Baztanesa, S.A.»

## AUTOBUS ENPRESA

**Eguneroko eta turismo bidaien zerbitzua**

Santiago 25 · © 948 580129 · ELIZONDO



M<sup>a</sup> Azpillkueta karrika, 10  
Tfnoa./Faxa (948) 58 04 88 - 58 06 15  
31700 Elizondo

## Dirulaguntzen menpekotasuna

Erreformak prezioaren jautsiera dirulaguntza zuzenak handituz konpensatu nahi du. Baina jautsiera hori ez da guztira konpensatzen. Hau da, lan gehiago egin beharko da soldata berdina ateratzeko. Planteamendu honekin, gainera, handitu egiten da dirulaguntzen menpekotasuna. Bide batez handitu egiten da baserrien ahuldadea, espekulazioaren bidea zabaldu egiten delarik.

Horretaz gain, erreformak ez du aipatu ere egiten dirulaguntzaren banaketa, eta ezagunaenez, oso gaizki egiten da. Espainian Mario Conde eta Albako dukesa dira zuzenean Europatik dirulaguntza gehien kobratzen dutenak.

## Finantziazioa

Finantziazio eredu berria erabat arriskutsua izan daiteke nazio eta Estatu pobrentzat eta mesedegarria, aldiz, indartsuentzat.

Europako Batzordeak onartu berria du, erabakia behin betikoa ez bada ere, Estatu bakoitzak nekazaritza

politikaren %25eko aurrekontua jarri beharko duela. Alemaniak jarriko du dagokion zatia, Frantziak ere bai, eta hemen, jarriko al da? Behi eroen afera sortu zen garaian Estatuak bazuen dirulaguntzak emateko ahalmena, baina produktoreek ez zuten pezetak ere ikusi. Antzeko zerbitzu gertatu daiteke neurri hori aurrera ateratzen bada.

## Fondo estrukturalak

Europak zonifikaturik dauka bere eremua eremu bakoitzaren aberastasunaren arabera, beti ere Estatu eta nazio pobreenak laguntzeko asmotan. Eta Europar Batasuna zabaldu egin nahienez ekialdera zonifikazio berri bat planteatzen da, zabalagoa. Proposamen horren arabera, 5B izeneko zonaldeak desagertu egiten litratekeen, orain arte jaso izan diren diru iturriak moztuz. Europako ekialdeak, noski, laguntza behar du beste kideen mailara ailegatzeko. Ez goaz horren aurka. Gertatzen dena zera da, hemengo mendialdean ere behar direla laguntza horiek.

*Segitzen du* ♦

## BETIZY ALBAITARITZA

- ★ Produktu zoosanitarioak
- ★ Pentsuak
- ★ Aziendendako fresneria

© 948 580 230 - Santiago 62 - ELIZONDO

## ARKUPE goxotegi kafetegia

**Tarta bereziak  
Etxeko izozkiak**

IRURITA © 948 452021  
ELIZONDO © 948 452393

## ELKAR ASEGURUA

• Tfnoa: 948 580077 ELIZONDO •



## Galdetu zure buruari

- Zenbat kostatzen zait aseguruak? tuak daude?
- Profesionalen eskuetan nago? • Non daude aseguru agentziak, zentralarekin konektatuak, seguruak momentuan egiteko?
- Nere etxea, edo baserria, bajera, denda, enpresa... ongi baloratzen duzue?

**HEMEN DUZU, ELIZONDON BERTAN, ELKAR MULTIAGENTZIA**

*Deitu honrelako edo bertzelako mila galderekin*





Aziendaz gain, izaten da zer ikusi eta zer erosi Elizondoko ferietan. Baratzuriak dira salmenta aunitz izaten duten produktuetakoa bat.

Arg.: ONDIKOL

## BAZTAN • MALERREKA • BORTZIRIETAKO SEAT ZERBITZU OFIZIALA



MEKANIKA

ELEKTRIZITATEA

GASEN AZTERTZAILEA

ITVrako PRESTAKUNTZA

DIREKZIOAREN ZUZENKETA

ORDENADORE BIDEZ

Tailerrak:  
ELIZONDOKO  
sarreran  
Telefonoa:  
948 58 02 25

**SEAT**

**DATUCELAY**

## RETEGI GOXOTEGIA

*Etxean egindako gozoki klase guztiak:*

- FERIETAKO TURROIAK
- Euskal Pastela eta pastak
- Txokolatea urrakin egina
- Txokolatea almendrekin egina

**FERIA ZORIONTSUAK IZAN**


Santiago 43 • © 948 452186 • ELIZONDO



Embutidos

**Esarte**

hertzebete  
goxo-goxoak



© 948 580 144

Braulio Iriarte, 32 – ELIZONDO

Elizondoko  
ferietan  
izanen  
gaituzue



◆ **Auto  
karnetarik  
gabe**

◆ **10 egunetan  
eskuratzeko  
moduan**

**Ligier  
Ambra  
berria**

**Hegoaldean  
homologatuak**

Baiona/Kanbo  
bidean

**ETCHEGARAY GARAJEA**

© 07-33-5-59 93

## Eta erreformaren aurrean zer?

Erreforma honek zerbait ona baldin badu zera da: azken hitza esateko dagoela, garaiz gaudela aldaketak proposatzeko eta aintziner eramateko. Nekazaritzeko

sektoreko arazoak kaleratzeko garaia da, irtenbideak eskatzeko garaia da. Europan hartzen den azken erabakia baldintzatzeko moduan gaudete, eta geure ahalmenaren arabera erreforma alde batera edo bestera joango da. Ardatz eta irizpide nagusiak aldatzea sei

la izanen bada ere, aldaketa interesgarriak egiteko bidea dago. Adibidez, prezioak mantentzea edota dirulaguntzak hobeki banatzea posible ikusten da, beti ere, lana egiteko ahalmena erakusten badugu.



Gasnak, txorizoa, piperrak... negura begira ongi hornitzea komeni da.

Arg.: ONDIKOL



EHNE



**E.H.N.E.**



**BASERRITARREN SINDIKATUA**

## Zure tresnarik onena!

Zerbitzurik onenak baserritarrentzat:

- ✓ Aseguru merkeak baldintza hoberenetan
- ✓ Informazioz beteriko aldizkaria hamabostero zure etxean
- ✓ Abokatu zerbitzua
- ✓ Fiskalitatea, laguntzak, tramitazioak...

**Laguntza zuzena eta pertsonalizatua**

Bulegoak: Elizondo 948 581302  
Iruña 948 254841  
Lodosa 948 694242

«EHNE

beharrezkoa da»



Federiko Etxenike

**EHNE**  
ko

«Nekazarien sindi-  
katurik hoberena»



Santi Iturria

«Gure tresna»



Jaime Urrutia

«Beharrezkoa sektorea-  
ren etorkizunerako»



Patziku Irisarri

Baserritarrak  
Baserritarrak  
Baserritarrak  
Baserritarrak

«Baserritarren  
sindikatura»



Oskar Ilarregi





Ordoki Industrialdea • ARIZKUN  
Tfnoa. eta faxa: (948) 45 32 59

## 4 arrazoi on PVC jartzeko



### ISOLAMENDUA



### MANTENU ERREXA



### HERMETIKOTASUNA



### IRAUNKORTASUNA

*Etxe berrietan eta  
zaharretan. Edozein  
itxiera, balkoi,  
leiho, atari...*

*Fabrikako  
prezioak*



*Betikon kolore ugari  
ditugu, baita egur  
koloreak ere  
(haritza, kaoba,  
pinua etab.).  
Eta edozein  
etxe estilora  
egokitzen direnak.*

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu**



Ezkerreko argazkian ageri denez, nekazal tresneriak ere tarte berezia izaten du ferietan. Gutti dira feria egunean saltzen diren traktoreak edo bertze gisako makinak, baina feria egunean ikusitakoaren bila dendara lasai-lasai joaten direnak aunitz dira.

Eskuinean, zaldi-tratua egiten. Gehien bat behiak eta aretzeak izaten badira ere, azken urteetan astoak, zaldiak, behorrak eta pottoka ugari agertzen da Elizondoko ferietan.

Arg.: ONDIKOL



**RENAULT**  
Kontzesionarioa

## PEDRO GARMENDIA, S.A.


FRANZTIARAKO ERREP.

TELEFONOAK:

94858 04 31 - 948 58 04 36

FAX: (948) 58 09 73

ELIZONDO



### AUTOZERBITZU

### ESTAZIOA

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**

• Gasolina • Gasoil • Super • Karburantea • Engraseak • Garbiketak • Olioak • Grasa • Neumarikoak • Akzesorioak •


**Tfnoa: 58 03 09 - ELIZONDO**

# BAZTAN ALTZARIAK

zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, Luis Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54 km.  
Tfnoa: 948 45 23 74  
IRURITA



**SAME**



- **Modelo berriak:**
  - Silver 80, 90 eta 100 cv, inbertsore hidraulikoarekin
  - Dorado 60 eta 70 cv

**Oraindik seguroagoak,  
oraindik erosoagoak**

**IRTEERA-ESKEINTZA BEREZIAK**



**Ikusi eta informa zaituz,  
konpromezurik gabe:**



**AROS-BERRI, S.A.**  
121-B errep., 54. km • IRURITA  
Tfnoak: 948-581021-948 580258

**Nafarroa eta  
Gipuzkoarako  
banatzailea**

➔ **MALERREKA-BERTIZARANA**

# Euskararen Eguna ospatu dituzte Zubieta eta Legasan

Errota zaharrea ekomuseoa zabaldu dute zubietarrek

TTIPI-TTAPA

Asteburu berean euskararen aldeko bi egun ospatu ziren. Larunbatean, urriaren 10ean, Zubietan zen hitzordua. UEMAKo kide den herri honetan Euskararen Eguna ospatu eta bidetabarkoan, moldatu eta itxura berritutako errota estreinatuta zuten. Jakina denez, ekomuseoa izanen da hemendik aurrera. Ekitaldiak ikusmina sortu zuen eta herritarrekin batera, kanpoko jendea ere de-xente ibili zen, errota batek nola lan egiten duen ikusi asmoz. Ekomuseoa astelehene-tik ortziralera, goizez zabalduko da. Larunbat eta igandetan, berriz, egun osoan irekiak izanen ditu bere ateak.

Errotaren funtzionamendua ikusi eta ikas-teaz gain, goiko solairuan dagoen erakuske-ta ikusgarria bisitatze-ak ere merezi du. Zubie-tarrek etxean topatu eta utzitako tresna zaharrak ikusten ahal dira bertan, bertzeak bertze Azkon-zolotabardako Pruden-cia Eskudero utzi-tako area edo Petrixene-ako Manuel Elizalde-ek utzitako egurrezko es-ku-gurdia.

## Langarraren Euskararen Eguna Legasan

Igandean, urriaren 11n, Legasan ospatu zen Langarra Euskara taldeak eta Legasako Gazteek, Nafarroako Gobernu eta Legasako Kontzejua-aren laguntzaz



izan zen zer ikusi eta zer dastatu Zubieta eta Legasako Euskararen Egunetan. Zubietan, errota berritua estreinatuta zuten eta hango irinarekin egindako taloak jan zituzten. Legasan, Joxemari eta Jexumari Etxart anaiek gazta eta gaztanbera nola egiten dituzten erakutsi zuten.

Argazkiak: Diario de Noticias

antolatutako Euskararen Eguna.

Goizean haurrek jostetan ibiltzeko aukera izan zuten. Gero, Berako Gure Txokoa dantza taldearen emana-dia etorri zen. Artisauen erakusketa zabaldu zen eta bertan,

Legasako Joxe Mari eta Jexumari Etxartek gasna eta gaztanbera nola egiten diren erakutsi zuten. Honek, ikusten zeuden lagunen gosea piztu zuen, nonbait, herri bazkarian 150 bat lagun bildu baitziren. Bazkalondoa, Berako

Larrakaitz txarangak animatu zuen. Fregoli antzerki taldeak 'S.A.S.A' izeneko antzeslana eskaini zuen. Eguna behar bezala akitzeko -batzuk Pilarika Egunarekin lotzeko ere-dantzaldia izan zen Gaubela taldearekin.

## Iturandar bat torturatzeagatik lau polizia zigortuak

Auzitegi Gorenak baieztatu du Madrilgo Auzitegi Probintzialak Enrique Erregerena iturendarra torturatu zuten lau polizia ezarritako zigorra. Erregerena 1982ko irailean atxilotu zuten etxean eta hiru hilabete beranduago asko utzi zuten kargurik gabe. Madrilgo komisarian egon zen hamar egunetan torturak jaso zituela salatu zuen. Erregerenak milioi bat hartuko du kalteordain gisa.

## Udazkeneko Bira Malerrekan

Urriaren 31n, Ituraren zinea ikusteko aukera izanen da Udazkeneko Biraren barreran. Gaueko 9etan, Herriko Etxeko ganbaran, "Wallace & Gromit" filmea ikusgai izanen da, euskaraz.

Biharamonean, azaroaren 1ean, Donamariako plazan izanen da folklore dantza ikuskitzuna. Goizeko 11,30etatik aitzinera Aitzindari taldea arituko da.

## Oierregiko saneamendu eta zolaberritze lanak

Oierregiko Kontzejua, saneamendu sare berria, zolaberritze lanak eta gasaren kanalizazioa egiteko lehiaketa atera du. Proposamenak urriaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Gehieneko aurrekontua 39.070.520 pezetakoa da (saneamendu sareak 26.337.264 pezeta, zolaberritzeak 5.391.355 pta eta gasaren kanalizazioak 7.341.901 pta).



**GOIZUETA**

# Zaharren Eguna, Herri Olinpiadak eta zikiro-jatea Umore Ona elkartearen eskutik

Urriaren azken bi asteburutan izanen dira ekitaldi guzti hauek

**ESTEBAN AROZENA**

Urriaren azkeneko bi asteburuetan izanen dute non entreteniturik Umore Ona elkarteak juntako kideek, baita hauek antolatutako ekintzetan parte hartuko dutenek ere.

Hilaren 24 eta 25a hirurogeita bost urtetik gorako herritarrei eskainiko zaie bereziki. Larunbat ilunabarrean mus eta truk txapelketak jokatu dituzte eta igandeko jai haundia Meza Nagusiarekin hasiko da. Ondoren, pilota partiduak jokatu dira, eta Joxe Lizaso eta Joxe Agirre bertsolarien saioaren ondoren, Umore Ona gainezka beteko dute bazkaldu asmoz elkarte honen gonbiteari erantzuten diotenek.

Urriaren 31ko festan gazteagoak izanen dira protagonistak, herri



## Jostalekua osatzen ari da plazan

Plazako haurren jostalekua pixkana osatzen ari da. Herriko neska-mutikoek erantzun ona eman diote.

Argazkia: Pili Zugarramurdi

olinpiaden edizio berri bat ospatuko baita egun horretan. Iazko etenaldiaren ondoren, lehenengo urtetan hainbeste arrakasta izan zuen ekitaldi hau antolatzeari ekin dio berriz Umore Onak. Oraingoan, gainera, herritarren

partaidetza bultzatu asmoz edo, gaueko zikiro jatera gonbidatuak egonen dira probetan parte hartutako guziak. Kalean erreko den zikiroa dastatu nahi duten gainontzekoek milana pezeta ordaindu beharko dute.

Arratsaldeko 6etan emanen zaie hasiera Olinpiadei. Aurretik, sei lagunez osatutako taldeak izena emanak izan beharko dute, koadrilan gutxienez bi emakume behar dutela kontutan hartuz. Burutu beharreko probak oraindik ze-

hazu gabe daude, baina ondorengo hauek izanen dira gutxi gora behera: sokatira, toka, kokor apostua, txingak eta eskia. Arratsaldeko 4etan mus txapelketa azkarra egiteko asmoa dute antolatzailuek, baita kirolarien lanak bukatutakoan, trikitixarekin poteo herrikoia ere.

## Zolaberritze lanak

“Antoka eta Muxulin herri bideen zolaberritze lanak” izeneko proiektuari aurkeztutako bi eskaintza ekonomikoen artean Murias eraikuntza enpresaren alde egin zuen Udalak. Donostiako enpresa honen eskaintza ekonomikoa 26.245.000 pezetakoa zen, eta lanak bukatzeko epea hiru hilabetekoa. Azpiroz y Saralegirena, berriz, 28.893.000 pezetakoa eta lau hilabeteko epekoa zen.

**ARESO**

# Drogomenpekotasunaren prebentzio plana martxan

Asteazkenetan egongo da teknikaria Areson

**JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR**

Drogomenpekotasunaren prebentzio-plana martxan jarri dute lau udalerrik, Areso barne. Eskolako umeekin lan egitea izanen du lehen-tasuna, argibideak emanez, gai hauek gehiago

landuz eta, nolabait, droga hor dagoela-eta, berekin bizitzen jakitea eta aurrera egitea erakutsiz. Bizi osasuntsu berri bat antolatzea da planaren helburu nagusia, bai elikadura aldetik baita aisialdiari probetxua ateraz ere. Harrera-egunak

asteazkenak izangodira 9,30etatik 11,30etara Osasun Etxean.

## Guraso Elkarteak antolatutako ikastaroak

Txikien dantza ikastaroa ostiraletan arratsaldeko 5etan izango



Ikastaroetan buru-belarri hasi dira herriko neska-mutikoak

Artxiboa

da; panderokoa, berriz, larunbat goizean eta tri-

kitixa azteazken arratsaldetan.



# Drogomenpeketasun prebentzio programa martxan da Leitzaldeko herrietan

Junkal Otxotorena izanen da arduraduna

JOSEBA AZPIROZ

Drogomenpeketasun prebentzio programa Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak jarri du martxan, Nafarroako Osasun Departamenduarekin lankidetzan. Beraz, zerbitzua lau herri hauetako biztanlegoari zuzenduta dago. Programa burutzeko teknikari bat kontratatu dute urtearen azkena arte –Junkal Otxotorena–. Programaren helburua drogomenpeketasunaren prebentzioa da. Hau da, pertsonaren nortasun eta identitatea eraikitzea, norberak erabaki dezan zergatik, nola, noiz eta zenbat kontsumitzen duen, menpekotasunik sortu gabe. Horretarako gizarte osoaren inplikazioa behar da, beraz, ikastetxe, guraso talde, gazteekin... lan eginen du teknika-riak, tailer, ikastaro, irteera, solasaldi, irratia... eginez. Informazio gehiago jasotzeko 948 610901 telefonora deitu dezakezue.



## Txalaparta ikastaroan aritutakoen afaria

Aurtengo udan Arantxa Ansa aranoarrak txalaparta ikastaroa eman du Leitza. Bertan, hogeita lau lagunek parte hartu dute eta aurreko batean bildu ziren Larraungo ikastaroko kideekin batera, afaritxo baten aitzakian. Bistakoa da zer nolako giroan.

Argazkia: Bihotz Astibia

## Euskara Merkataritza mundura

Leitza eta Aresoko Udaletako Euskara Zerbitzuak pertsona bat behar du “Euskara merkataritza mundura” izeneko programa martxan jartzeko. Langile honek bi herriotako denda, jantxe, tailer eta establezimendu guztiak bisitatu ditu azaroan, Eus-

kara Zerbitzuaren eskaintza eta programa azaltzeko. Izena Euskara Zerbitzuan edo Areso nahiz Leitzako Udaletxeetan eman behar da, hilaren 28a baino lehen.

## Mugaz Muga

Kultur Taldeak VI. Mugaz Muga ibilaldia antolatu du. Leitzako muga hiru ibilalditan kurrituko da. Lehenda-

biziko ibilaldia hilaren 25ean izanen da Plazaolatik Korteko bordara. Bigarrena azaroaren 1ean, Korteko bordatik Rezolara eta hirugarrena azaroaren 8an, Rezolatik Plazaolara. Goizeko 7,30etan aterako da plazatik eta ize- na ibilaldiaren aurreko ostirala baino lehen eman behar da Astizedo Maimur liburutegietan.

## flash

### ❖ Oihan ateratzea

Udalak Urdolan izei gorri osatutako lote bat atera du subastan. Guztira 248 ondo –432 metro kubiko– dira eta lizitazio prezioa 4.320.000 pezetakoa da. Proposamenak azaroaren 9ko eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

### ❖ Leitzako Moto Igoera igandean

Igande honetan, urriak 25, arratsaldeko 3etatik 7ak arte, Motoklub Motokrak taldeak antolatzen duen eta Nafarroako txapelketan puntuagarria izanen den Leitzako Igoera burutuko da. Moto-koak Amazabal ingurutik aterako dira eta Basa-Kabi baino lehenxeago bukatuko dute proba.

## Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolqueteendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Piztina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak



Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8  
**LESAKA** (Zalain industrialdearen ondoan)

Tel. 948. 63 10 03  
Mug.: 929 01 59 23

LOREDENDA FLORIGERIA  
**BITXI LORE**  
948 611 0634 LEITZA  
Domisaindu egunerako behar duzuna

**ttipi-ttapa**

Zure publizitatea  
etxe xoko  
guzietan

6.800 harpidedun  
23.000 irakurle

☎ 948 63 11 88

# Elizondoko erresidentzietan adineko guttiago izanen dira

Nafarroako Gobernuko Gerontologi Plan berriaren arabera

TTIPI-TTAPA

Arkupeak erretiratuen elkarteak urteko Anaitasun Besta ospatu zuen Elizondon urriaren 13an. Baztan, Bidasoa, Malerreka eta Leitzaldeko 300 bat jubilatatu bildu ziren Santiago elizan, Javier Azpiroz apezak emandako meza aditzera. Gero, Baztan hostalean bazkaldu zuten. Ekitaldian ez zen Felipe Ganboa egon, kaderatik operatu beharra baitzuten. Bai, ordea, Jose Luis Alli Fernandez, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate saileko Zuzendari Nagusia.

## IRUÑEAN ERRESIDENTZIA BERRIAK EGINEN DIRENEZ, BAZTANGOAK LASAITUKO DIRA

Honek, Nafarroako Gobernuak prestatutako Gerontologi Plan berriari buruzko solasaldi luzea eskaini zuen. Bere erranetan, Iruñean zenbait Zahar Etxe edo erresidentzia eraikiko dira eta honela, Baztan-Bidasoan daudenak lasaixeago geldituko di-



Arkupeak elkarteko jubilatua, meza aditu ondotik

Ondikol

ra. «Baztanen, adibidez, hiru erresidentzia dauka gaur egun, baina bertan Iruñeko jende aunitz dago. Iruñean erresidentziak zabaltzen bada, hemen bertako adinekoak sartu ahal izanen dira. Hori da gure helburuetako bat» adierazi zuen Allik.

Eraberean, Plan berriaren arabera, Elizondoko hiru zentroek zenbait aldaketa izanen dituztela adierazi zuen. «San Francisco Javier

erresidentzian 148 lagunendako lekua dago eta kopuru hori alda daiteke. Pilar erresidentzia 37 lagunetik 36ra pasatuko da eta Maria Josefa Recio Zahar Etxea 43 lagunetik 42ra, zenbait moldaketa egiteko bakar-bakarrik».

Gizarte Ongizate saileko zuzendariak Doneztebeko eguneko zentruaz eta bertze zenbait gaitaz ere solastu zen, luze eta zabal.

## Egingo dugu kanpaina martxan da Baztanen

Baztanen "Egingo dugu" euskal komunikabide berrien sorrera ahalbideratzeko kanpaina martxan dago. *Baietz!* fundazioko ki-deek informazio solasaldia burutu dute, proiektuaren xehetasunak ezagutu dira eta lan talde ugari muntatu dira diru-bilketa kanpainaren inguruan.

## flash

❖ **Artisautza ikastaroa**  
hasi berria da Elbeteko eskolan. Maiatza bitartean luzatuko da eta klaseak astearte eta ortzegunetan emanen dira, arratsaldeko 3etatik 5etara. Parte hartzeko eskolara agertu behar da.

❖ **Pisten moldaketa**  
Balleko Udalak bai mena eskatuko dio Urdazubiko Udalarri Bordaxuri eta Amutzena baserrietarako bideak hobetzeko. Baserri hauek Baztanen badaude ere, bidea Urdazubiko Telleria auzotik pasatzen da.

❖ **Iñaute asteartea**  
besta eguna izanen da datorren urtean. Honela erabaki du Udalak.

❖ **Tibeteko monjea Lekarozko institutuan**  
Tchödup Dorje monje budistak solasaldia eskaini zuen Lekarozko Institutuko ikasleei urriaren 14an. Hamabortz eta hamazazpi urte arteko 90 bat ikaslek adi entzun zuten lama honen azalpenak eta txaloz agurtu zuten.

❖ **Turismo ikasleek Gorrienean praktikak eginen dituzte**  
Arizkongo Bozate auzoan dagoen Gorrienea etxean praktikak eginen dituzte Nafarroako turismo ikasleek. Jakinaenez, etxe hau Xabier Santxotena artistarena da eta urte osoan bere lanak ikusgai daude bertan.

Baztanen... **24 orduko zerbitzua**

Esther... **ESTHER FUNERARIA**  
Hilaketa • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

Eta Iruñean... **IRACHE TANATORIOA**  
Iratxe Monastegia, 60  
Tfnoa: 26 09 54


LOREDENDA • GARDEN CENTER

Arizondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**  
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, © 948580939  
ELIZONDO

**UDAZKENEKO ARROPAK**  
Trajeak, jertseak, galtzak,  
gonak, berokiak...

**ESKULANGINTZAKO MATERIALA**



## Onddo ederrak Erratzun

Santiago Ibargarai erratzuarrak eta Xabier bere semeak onddo-xorta ederra hartu dute. Batek 950 gramo zituen, bertze bik 800 gramo eta laugarrenak 700.

Ondikol

# Ornozko etxebizitzak Guardia Zibilari ez ematea eskatu du EAK

### Nafarroako Gobernuak ez omen du bere akordioa bete

Ornozko kuartelaren afera Espainiako kongresura ere ailegatu da. Bertan, IUK egin-dako galdera bati erantzunez, Doneztebeko kuartela arras egoera txarrean zegoela eta Oronozera lehenbailehen joan behar zela erran zen.

Hurbilago ere izanen da zer erranik gai honen inguruan. Jose Mari Aierdi, Nafarroako Eusko Alkartasunako Idazkari Nagusiak kameneroen etxebizitzak guardiazibilari ez ematea eskatu du. Aierdiren erranetan, «Nafarroako Gobernuak ez du berak hartutako akordioa

*betetzen: hasieran guardia-zibilak bizitzeko etxebizitzak izanen zirela erran zen, eta orain, Presidentzia Ministeritzaren arabera, Doneztebeko ardezkatuko duen bertze kuartel bat egin nahi da». EAreu ustez, etxebizitzei hasieran pentsatutako erabilera ez bazaie ematen, berriaz ere Nafarroako Gobernuaren eskuetara bueltatu beharko liriateke.*

Aierdik errandakoaren arabera, «herrien interesak beharrezkoak ez diren koartelen gaintetik egon beharko liriateke».

## Gazte Asanbladak antolatutako txalaparta ikastaroa hasi da

Baztango Gazte Asanbladak antolatutako txalaparta ikastaroa astelehen honetan, urriak 19, hasi da. Negu osan, astelehenero eta asteazkenero izanen dira klaseak, gaueko 9,30etan, Baztan-

darren Biltzarren egoitzan. Izen emateak ere egun horietan egiten ahal dira, zuzeanean egoitzara agertuz. Ikastaroa muxutruk izanen da eta Patxi Etxeberria ari-tuko da irakasle lanean.

Orain TTIPI TXARTELA izateagatik abantaila gehiago izanen dituzu. Erosketa egiterakoan erakutsi TTIPI TXARTELA eta ZOZKETAn parte hartzeko boletoak irabaziko dituzu honako denda eta ostatu

## DESKONTUAK

### AISIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ. .... Bertiz

### AUTO TALLERRAK

MENDAUR MOTOR . . Doneztebe

SANPI ARAGON . . . Doneztebe

PEDRO GARMENDIA . Elizondo

DATUGELAY . . . . . Elizondo

SANSINENA . . . . . Elizondo

LACOSTA . . . . . Iruvita

ZALAIN MOTOR . . . . Bera

### AUTO-ESKOLAK

SEMPER . . . . . Bera

### ARGAZKI DENDAK

GOIKO . . . . . Bera

AYLA . . . . . Bera

MENA . . . . . Doneztebe/Elizondo

ZALDUA . . . . . Doneztebe/Elizondo

### ARROPA DENDAK

EDURNE . . . . . Bera

SAIOA . . . . . Doneztebe

J.J. PICABEA . . . . Doneztebe

TXIRRISTA . . . . . Doneztebe

KAMAMILA . . . . . Doneztebe

PICABEA BOUTIQUE . Doneztebe

IPINGI . . . . . Elizondo

COCOS . . . . . Elizondo

KATTALINGORRI. . . Elizondo

FANTXIKE . . . . . Elizondo

### ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS. . . . . Lesaka

ALTZURI . . . . . Lesaka

RADIO BIDASOA. . . Bera

### ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA . . . . . Doneztebe

BEATRIZ . . . . . Elizondo

MARIAN . . . . . Lesaka

### KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK . . Elizondo

ZELA KIROLAK . . . Bera

AGARA KIROLAK . . Bera

Mª LUZ SPORT . . . Bera

### LENTZERIAK

Mª CRUZ. . . . . Doneztebe

MAITE. . . . . Elizondo

DEÑE . . . . . Lesaka

### LIBURUDENDAK

NAFAPRESS . . . . . Elizondo

LEGARRA . . . . . Lesaka

### MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK . Doneztebe

LEIZA . . . . . Elizondo

### OPTIKAK

OSTARGI . . . . . Bera

### PENTSUAUAK

MENDAUR . . . . . Doneztebe

### ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS . . . . . Bera

GOÑI . . . . . Elizondo

NEREA . . . . . Doneztebe

OSTIZ . . . . . Doneztebe

### ZURGINAK

ZIMELDI . . . . . Etxalar

...eta erosketagatik deskonturik ez, bainan bai boletoak

### BERA

